

Erref. kodea: LAF-322-159

Izenburua: Jean Elizalde 'Zerbitzari'ren literatura

Ianak: Antzerkiak, alegiak, narrazioa

27
26
25
24
23
22
21
20
19
18
17
16
15
14
13
12
11
10
9
8
7
6
5
4
3
2
1
0



0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 32 33 34 35 36 37 38 39 40

Bi gogorrak

joué
à bétaritz,
à Cambo
à Hasparren

— Jostarazleak —

Jaureguy	, 60 urthe .
Ganich	, 20 urthe .
Piarres	, 25 urthe .
Berbitzaria	, 40 urthe .

Ohartgarriak — Ostatu batean doa eskual-jostagailu hau, bururen-buru. Ongi litake Jaureguy chamara batekin yauntz dadien; Berbitzaria, ostatuetakoz berbitzariak jaunzten duen bezala; Ganich eta Piarres, atheta maunka has, mokanes gorri bana lephoan. Jostarazleak behin ez lukete ahantz behar deus ez dela ikusleentzat zozoago eta unhasgarriago jostarazlea, itzea iduri, mugitu gabe egotea baino. Higitu behar da, higitu norapit, mundua irri egiterat. atheta denaz geroz, ase bat ona egin dezan.

Bilduma

Jareguy pegar zahar bat bezen gogorra baita bera, ez du suhitzat gogor bat bairrik nahi. Ganich pilotaria arnas gustukoa luke segurki, bainan ... ez da gogorra. Hainber-tzenarekin buruz-buru egiten dute quie bi gizonek: ni-holar ez dute haatik elgar aditzen ahal. Pilotari lagun batek Ganichi bururat ematen dio gogorrarena egin dezan beraz. Baduk hobetik! Hain chuchen arte hortan Jareguy sendatu da eta ez du gehiago etchean gogorrik nahi. Ez dio beraz alaba emanen Ganichi? Ba, palabra ederrren on-dotik, Jarreresek oro antolatuko baititu! Ganichen aufak!

Eskual-jostagailu hau Blazy Urstaritzeko jaun
aphez-nausiari eskaintzen dio
Egileak,

Bizi dadin Eskuara
Orai eta gero,
Berma gaiten hortara
Eskualdunak oro. b.

— Bi gogorak. —

(Eskual-jostagailua.)

I

- Piarres. Ervan bezala beraz, Ganich?
- Ganich. Bai, erran bezala.
- Piarres. Igandean bezperak ondoan hi eta ni bi Bidar-
tar hobereenen kontra, ehun liberaz?
- Ganich. Ez diat egundaino hitz bat baizik izan, nik!
- Piarres. Parakiat, bazakiat!... Igande arte beraz.
- Ganich. Igande arte. Bainan hik ere atchikak gero hire
hitza?
- Piarres. Ber hitz?
- Ganich. Jada ahantzia duk? Maitenaz aiphatua!
- Piarres. Ba, ba, segurki!... Hik ere etzak haatik ahantzy Jau-
reguy zaharrak ez diola bere alaba emanen,
berritz ere erranen daiat, bera bezala beharrez go-
gor edo bederen gogorsko den bati baizik! Hortan,
agur Ganich! Ahal dutama hire alde eginen
diat, nik ere!...
- (Hortan, Piarres badoa kamporat.)
- Ganich. Hori gizonaren atheraldia! Ha, ha, ha, ha! Ba, bada-
kit Jaureguy kauteaeneko pertza handia bezen
gogorra! Nork ez daki? Bainan zertako ez lioke
bere Maitena pollita gogor bati baizik eman behar?
Nik ez dezaket sinhets hori!
Funtsean, laster jakintsun naiteke: hain chuchen
horra Jaureguy ostatuari buruz heldu. Mama churia
aski maita baitu, etzaut pinta pare bati baizik got-
tako.
(Kask kask mahainen jotzen du eta oihu egiten) Arnoa
humat?
- Berbitzaria. Oihu egin duzu?

Ganich . Ba, berehala ekarratzen pinta bat arno churi eta
bizzahirur baso, zer gerta ere!
(Terbitzaria badao eta sartzen da Jauregu) (Ez ahantz
gogorriak oihuka mintzatzen direla!)

II

Jauregu . Agur, Ganich. Bakarrik ostatuan?
Ganich . Laguna doidoia atheratua dut. Ez diruz bide hortan
buruz buru egin?

Jauregu . Norekin arizan haiz buruz-buru?
Ganich . (Gero eta gorago mintzatu da) Ez, enuen hori
erraten!... Piarresekin nintzela!

Jauregu . Piarresekin arizan haiz buruz-buru? Aise irabazi
diok hik hari? Lake hobe duk....

Ganich . Ikusi duzun ez galdetzen nautzun?

Jauregu . Nun arizan zaizte? Haultsun?
(Terbitzaria sartzen da bere arno eta basoekin.)

Ganich . (berech mintzo) Hau gizon pekada! Urrikari dut
hunen alaba gaikhoa!

Terbitzaria . Errozu berriz!
(Terbitzaria berehala badao kamporat)

Jauregu . Zer erran dik? Ari behar duzuela berriz?

Ganich . (mandatzen hasia) Ezetz, gizona!

Jauregu . He?

Ganich . He eta me, arno hau hauta dela, (artean trago bat)
bainan laster edan beharra!

Jauregu . Ba, ba, meharra duk, Piarres, bainan hats handia
dik eta etziok nor-nahik irabaziko!

Ganich . Jauregu, hobe duzu kasira hortan jarririk, bertze
trago baten edatea, arnoa hoztu gabe!
(Trinkaturik berriz edaten dute).

Jauregu . Zer jokatzeko zintuten?

Ganich . (berech mintzo) Hau zer lana hartu dukan, gauzo Ga-
nich!... (Jaureguin oihuka). Zer jokatzeko ginuen?
Hure Maitena pollitaren bihotza! (berech) E, atchemak

Jauregu . Hogo liberako bildotsa?

Ganich . Maitenaren bihotza!
 Jauregu . Noiz behar duzue jan?
 Ganich . Maitenaren bihotza!
 Jauregu . Zer? Jada erretzen ari dela eta sarri janen duzuela hotza?
 Ganich . Jesu, Maria eta Josepe! Zer ekarrarazi daut gizon dohakabe hau hunat!
 Jauregu . Ni izanen naizela zuen hiruzgarren laguna? Milesker, Ganich, milesker! Gogorra bahintz zoin gogotik hartuko hindukedan sunitzat, hi!...
 Ganich . Gaurko bildotsak ez dautzu kalterik eginen, eiki, demuntren pekada! Agur, Jauregu!
 (Euria gorrian, Ganich badao kamporat, gibeletik harritua dagokiolarik Jauregu)
 Jauregu . Zer ulik ausiki daut neri Ganich, holako mukurrean joateko! Zertan egin othe diot huts? Ala ba othe du burutik? Beha dezagun zoin alde hartzen duen? Erago bat edan-eta haatik!!!
 (Atheari buruz abiatu deneko, hama Piarres)
 (Pere astia hartuko Jaureguk, Ganich eta Piarres mintza diten)

III

Jauregu . Ho, Piarres!
 Piarres . Mandatu bat banuen Ganichentzat. Nun da?
 Jauregu . Zer?
 Piarres . (oihuka) Nun-den-Ga-nich?
 Jauregu . Nor nun den?
 Piarres . Ganich Ganich Ganich!
 Jauregu . Nun den Ganich? Doidoia joana olat, zazpi bipher gorri vietsi balitu bezen laster! Ez duk athean buruz-buru egin?
 Piarres . Segur naiz bere buruaren kontra errabian joan dela, etzintuelakotz aditzen! Pilota ukaldi bat harturik gogortua da!
 Jauregu . Gogorra naizen? Hori ez dakik oraino?
 Piarres . (aspalako) Ba, aspaldi, gizon astoa!

Jaurreguy . Preseski! Etcheke astoak urtar bat emanik!

Piarres . (oihuka) Ganich ere hala dela!

Jaurreguy . Nor zer dela?

Piarres . Ganich ere gogorra dela eta hortako joan dela kampionat!

Jaurreguy . Ganich gogortu? Noiz?

Piarres . Atzo?

Jaurreguy . Noiz?

Piarres . Atzo ... atzo ... atzo!

Jaurreguy . Jainkoari eskerrak! Maitenarentzat senhar gogor baten bitxia bainindabilan, horra nere gizona! Lasterka eskaintzerat banoakiok!

Piarres . (gibelatik) Habil, habil, apo beltza! Ganichek eta nik jada bazakiagu elgarren berri: athe gibel hortan mintzatus diat... eta berriy hik baino lehenago mintzatuko!

(Mentze atetik oihuka) Ganich! Ho Ganich! haugi laster, eskuan diagu choria!

(Ganich sartzen da)

IV

Ganich . Ifernuko debru gurziak hirekin dituk hik naski, Piarres!

Piarres . Eta debru horiekin gurziekin ez othe nauk aingeru begirale bat hiretzat? Egia erran behar daiat haatik: irri-egingarri zautak mendia bezalako gizon bat nigarra begian ikustea! Eta zerren gatik nigarrez? Neska tzar baten gatik ...

Ganich . Piarres, enekin berehala samurtu nahi ez baduk, etzakala gaizkirik erran Maitenaz!

Piarres . Ez, gaicho maita, ez! Bazakiat hiretzat zeruan ez dela aingerurik Maitena bezalako rik! Pollita, ichila, langilea, garbia eta zer ez

Ganich duk oraino! Omea, jakintzuna, artecha.....
Erufa hadi, Piarnes, trufa hadi nahi dukan be-
zenbat, bainan maitena zer den nahi baduk
jakin, hoo jaun erretoraren ganat eta eni bezala
erranen daik, batere ez duela unnikari harekin
erkonduko den gizon gartea!

Piarnes Hobe segurki hietzat, adiekkidea! Aditu duk
haatik jaureguy athe gibel hortarik? Ez hau suhi-
tzat hartuko nun ez haizen gogortzen!

Ganich Hiki sinhetsarazi diokanaz geroz hala naizela!
Piarnes Ba, bainan hiri zagok orai berari frogatzea
hala haizela!

Ganich Nola, ordean?
Piarnes Gogorrarena eginez harekin! Aski diok zerbeit
erraten daukun aldi guzietz makur ihardestea!
Ez, aski diok zure aita bururen buru erratea!

Ganich Hori lan errecha diat!
Piarnes Ikusiko diagu. Hain chuchen horra nun heldu
zaukun bichi-bichia eta irria ezpainetan! Ber-
ma hadi! Zer gerta ere, ni athe gibelean
egonen nauk...

Ganich Zer salta egin behar othe diagu orai bi gogor-
rek?
(Piarnes badao alde batetik eta Jaureguy sartzen da
bertzetik.)

V

Jaureguy Nun da zure adiekkide Piarnes?
Ganich Ibe?
Jaureguy Nun den Piarnes?
Ganich Nor arizan da nigarrez? Zu? Hertako?
Jaureguy Ni nigarrez? Ez, futeho! Zure etxean sartzean
kaskako bat buruan harturik beharriak idelki
baitzaurzkit egundaino bezala!

Ganich (berech mintzo) Lehen gogorra baitzen, burutik joan othe zaut orai? (Jaureguri, oihuka) Zer erran duzu? Eliza gizona nauzen?

Jaureguy (berech mintzo) Gairo dohakabea! (Ganichi) Orai aditzen dutala egundains bezala!

Ganich Nungo orloari hautsi diozu hegala?

Jaureguy Berriz, ideki zautala beharria!

Ganich Harri ukaldika hautsi diozu hegala?

Jaureguy Zoin urrikalgari den gogorra, oi Zeruko Aita!

Ganich Badakitau Gure Aita?

Jaureguy Gairo Ganich!

Ganich Pa, badakit: Gure aita zeruetan zarena....

Jaureguy Ganich, ez da harritzeko doidoia ez badugu elgar aditu!

Ganich Erabil bedi sainduki zure izena....

Jaureguy Eskual. Berruko pilotari ederrera izanagatik, ez diot Ganichi Maitenarik ematen ahal!

Ganich Ehor bedi zure erretuma....

Jaureguy Ask, Ganich, aski!!!

Ganich Ikusten duzu badakitara?

Jaureguy Pa, ikusten dut! Bainan amets eder bat egina bainuen, Ganich, zuri fidatzeko Maitenaren bihotza....

Ganich Oilsarekin janen dugula bildotsa?

Jaureguy Ni nintzen baino ere gogorrago zare, Ganich!

Ganich He?

Jaureguy Mila urriki badut, bainan ez duzu ukanen nere alabarik! Bertze norapeit heda zatze zure sareak!

Ganich (berech) Ni zertan froga ari da! (Jaureguri) Deus ez dut aditzen, mintza zaitz gorachago, ahapetik arizan gabe hola!

Jaureguy Ganich, nihundik ez dugu elgar aditzen ahal: banoa etcherat!

Ganich Zer diru ekarriko dutan zure etcherat?

Jaureguy Agur, Ganich, agur! Urak eginen du bide ni zure ganat berriz hurbildu arte!

(Jaureguy atheratzerat doalarik, Gaurer sartzen da, oro aditarik Ganich choko batean egonen da, beharriak zirik eta zirika oilo luma handi batekin)

VI

Piarres
Jaureguy
Piarres
Jaureguy
Piarres

Norat zoazi, Jaureguy?
Etcherat.
Ganichi Mantena hitzemanik?
Ez, eiki, pegar zahar bat baino gogorago baita!
Jar zaita hor, bi elke egin delzagun. Skusiko
duzu berehala Ganichen gaitza zurea beren senda
errecha dela! Atsegineken karrikan ikasi dut
zu sendo eta arras sendo zarela!

Jaureguy
Piarres

Ba, eta ez dutala gehiago suhi gogorrik nahi!!!
Berriuz ere erraten dautzut Ganich arras senda
errecha dela!

Jaureguy

Surdeko Ama Birjinarentzat, ba!
Armutzako Jauko Otziak ere sendatzen ditu-eta
holako gaitzak, gizona!

Piarres
Jaureguy
Piarres
Ganich

Noiztik?
Egundainotik!
(berch mintzo) Aldi hontan irabazi behar diat
naski auzia! Aupa!

Piarres
Jaureguy
Piarres

Jaureguy, gaitzikor zare?
Patere...
Badakizu trufa hartzen?

Jaureguy
Ganich

Trufa hartzen ez dakien gizona, ez duk gizona.
(berch mintzo) Ba, ba, segadan sartu behar du
choriak! Aupa!

Piarres

Hori da Eskualdunki mintzatzea! Etzinuen
doidoia erran beharrik, Mantena ez diozula
gehiago gogor bati eman nahi! Yada athe
gibel hortarik aditua nuen...

Jaureguy

Kertako galdegin dautak beraz eia Ganichi
hitzemana nion?

Piarres

Kerbeitetarik hasi behar bainuen elke hau!
Beraz zure azken hitza da ez duzula gogorrik
nahi etchean?

Jaureguy
Piarres
Ganich
Jaureguy

Ez, debruentchoa, ez!
Eta Ganich sendatzen balitz?
(berch) Aupa!
Ez niket suhi hoberik nahi! Pilotari handia,

sosoluna, batere ez phesta-egilea! Muthil pulita!

Ganich

(beriek) Aupa! Aupa!

Piarres

Jaurreguy, etzare beraz gaitzikor?

Jaurreguy

Berut ere erraten daiat ezetz, gizona!

Piarres

Beraz Maitena hitzematen ahal diozu Ganichi, ez da zu eta ni baino gogorrago!

Jaurreguy

Ganich ez dela gogorra?

Ganich

(kerbildurik) Ez, Jaurreguy, ez! Alegia arizan nitzautzu gure aitaren erraten! Barkatu! Gure alaba ez balitz aingeru bat izan, ez nintzen segur gogortuko, hola!

Jaurreguy

Gogo onez barkatzen daiat, Ganich! Gopa zak esku hau! Hira duk Maitena, berak hala nahi badu!

Piarres

Haude trankil badakitela elgaren berri bi usotxipi horiek!

Ganich

Milester, Jaurreguy! Eta hiri ere milester, Piarres: helduden igandean tripako hertzeak Pridarteko plaza lehenago utziiko ditat hiri partida galaraziko dutan baino!

Jaurreguy

Eta partida irabazi eta bigak nere etcherat ethorriko zaitze delako bildots eta oiloak, Maitenak emanik, jateko!

Piarres

Aupa!

Ganich

Aupa! Aupa!

Jaurreguy

Aupa! Aupa! Aupa!

Berbitzaria

(Berriak abiatzen dire kamporat)

Ganich

(ondotik) Aupa eta maupa nahi baduzue, bainan batek arno churi hau paga deradala eni! Huzen duk! Eta horra oraino berrogoi soteko bat konduaren gainerat!

Berbitzaria

Nik ere beraz: Aupa!

Berbitzari

27
26
25
24
23
22
21
20
19
18
17
16
15
14
13
12
11
10
9
8
7
6
5
4
3
2
1
0

11



0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 32 33 34 35 36 37 38 39 40

AKHELARREN.

— Jostarazleak —

Nurtzurigaray	, 40 urthe.
Guria	, 18 urthe.
Beltzaran	, 48 urthe.
Mikolas	, bizar-egilea.
Orrotan	, herriko-muthila.

Ohartgarriak — Bizar-egile barne bat nahi da jostagailu huntako, bere miralekin. Bi Kadria. Mahain bat bizar egiteko eta ile mozteko tresna gurietan, bai eta ampoil zenbeitetan.

Nurtzurigaray eta Guri ederki jauntziak dire; Beltzaran, langile bat bezala. Nurtzurigarayek bizar eder bat badu, iberik; Guriak ile badu, bizarrak ez; Beltzaranek badu ile eta bizar.

(Joseph Mawry delakoak egin erdal-jostagailu batek gogoratua da eskual-jostagailu hau. Bi jostagailuek ikusteko guti dute haatik elgarretan!)

Bilduma

Kartzurigaray eta Guria uretan dire Akelarren. Mi-
 kolasek ez dio bati bizirik egin nahi, ilerik mozte
 bertzean, ez dutela! Baina bi kampotarrek ez diote,
 jada jarriak, amor emanen. Heldu da Beltzaran
 haubertzenarekin. Oi ba, hurek baduela ile eta
 bizar eta oihan hortan gogotik lotuko dela lanean Mi-
 kolasek! Nun jarriko da haatik Beltzaran, bi kadirak
 jada hartuak direnar geroz! Ekarraraz balerate
 Herriko Muthila lekua hutsarazteko? Ba, fukho,
 harek hutsaraziko dituela bere orroekin Beltzaranen
 bizkar!

Louis Dassance, Eskualzaleen. Beltzaraneko jaun buruzagiar
 jostagailu hau eskaintzen dio Egileak

Jizi dadin Eskuara
 Orain eta gero
 Perma gaiten hortara
 Eskualdunak oro...
 h.

Akkhelarren.

(Eskual-jostagailua)

I

(Chichtur, biza nabalaren chorochten ari da jarri
zorra Mikolas, hutzurigaray sartzean.)

Hutzurigaray.

Agur.

Mikolas

Agur, jauna: zer da zure zerbitzuko?

Hutzurigaray

Ez dautzut batere zerbitzurik galdetzen! Itzak
bi haichtur ukaldiz behar dauzkitatzu paga-
mendutan moztu. Ez dut bertzerik nahi!

Mikolas

Ikusten dut zure^{ren} chuchen mintzatu behar dela!

Hutzurigaray

Elke gutichago hain nahi nuke! Nun behar dut
jarri?

Mikolas

Eskuineko kadira hortan...

(Hutzurigaray jarri denean, hitzik erran gabe
Mikolasek birkanretik ematen dio oihu churi luze
bat gorphutz, gurja hartzen diona eta chapelaren burutik
khentzen itze batean ditindan emateko)

Hutzurigaray

Norat deramarzu chapel hori?

Mikolas

Itze hortarat, jauna: ez duzu naski nahi cha-
pela buuan duzularik motz detzatzudaz ileak?

Hutzurigaray

Mugi zaitz bederen hortik!

Mikolas

Zer erran dautazu, ileak behar dauzkitzudala
moztu?

Hutzurigaray

(motz-motza) Baietz!

Mikolas

(irriz) Ondo bat ez dautzut ikusten!

Hutzurigaray

Aski dituzu bilhatzea! Etxinuke naski nahi
bat bertzearen ondotik eskuan nik hartu-eta
erran dezazudan: huna bat, motz zazu: huna
bertzea, motz zazu!

Mikolas

Jauna, iduritzen zaut hain ahanzten duzula: ni

naizela etche huntuak nausia eta ausartak
ez ditudala maite! Ethorri bidetik zoazi!

(Eta mahainaren gainean jarriak, Gabal-
tzen du Eskualduna eta hasten da irakurtzen)

Hurtzurigaray

Mikolas

Hurtzurigaray

Mikolas

Hurtzurigaray

Mikolas

Hurtzurigaray

Noiz hasi gogo duzu nere ileen moztan?
Sortzen dienean

Nere ileak mozte gogo ditutzu ala ez?
Sor diten nagoela, jaun maitea!

Nahuru zure trufa zogoak nik lasterko
sar-arazten dauzkizudala?

Ez ahal nauzu gatzik eta bipherrik gabe
janen?

Ez, etzaitut janen, bainan ba pherekaldi
bat ederra emanen!

(Hemen, Saulino iduri gure gizona ematen
da bi ukabilak gora, Mikolasi buruz) Egizu
orai bidez erdi!

(Hainbertzenarekin sortzen da Guria. Berehala
chutiturik, Mikolasek jar-arazten du bigarren
kadrian, Hurtzurigaray berean jarri baita)

II

Mikolas

Guria

Mikolas

Guria

Mikolas

Guria

Mikolas

Guria

Mikolas

Her nahi duzu, lephoko ile hori mozte?

Lephoa mozte?

Ez, lephoa, ez, bainan lepho gaineko ile horiek.
Lephoko ileak utziko ditutzu hor!

Her nahi duzu beraz?

Bizarra egitea.

(hurbildik Guriari behatu ondoan) Heru bizarra
egin?

Hori ba? Aita Sainduari?

Ez dautzut bizar ondorik ikusten!

Guria

Bichta laburtua baduzu, aski dituzte berinak ematea! Etzinueke gaizki irri eginen, neronek erraten barautzu: huna ondo bat, huna bertzea! Baduzu bederen bizar nabalik?

Mikolas

Eta zuk baduzu bizar ondorik?
(Egundaino bezala mahainen jartzan da Mikolas eta berriaz gabaltzen du eskualduna.)

Guria

Ba edo ez egin gogo dautazu bizar hau? Kerren beha zaude?

Mikolas

Beren beha nagon? Bizarra sor dakizun...
(Demora huntan gurian, hutzurigaray bati beha, bertzeari beha egon barta, ahoa idelkitzen zuteneko, artetik sartzen da.)

Hutzurigaray

Enuen den gutieneko dudarik! Jauna, ez dautzu bizarrik egin nahi zuri, eni dorioia ez daut izerik moztu nahi izan! Zer diozu chori hortaz?

Guria

Den bezalakoak pherekaldi bat ederra merezi lukeela!

Hutzurigaray

Gutik egina du ez baitrat pada eman!

Mikolas

Huen mehatchuek ez dautet odola hainitz itzularazten!

Guria

Ez othe? Hurbil zaite beraz!

Hutzurigaray

Egizu bidez erdi!

Mikolas

(Bidak ematen dire chutik, ukabilak gora.)

Ha, ha, ha, ha! Enuen aspaldi holako zinemaruk ikusi etche huntan!

(Bralala eta bralala kantuz, edanskoa sartzen da Beltzaran, eta bi ukabilkariak beren hadiretan jartzan dire lasterka. Mozkor bat bezala, gorako mintzatu da Beltzaran.)

Besoak ibiliz, erhotuak baire bezala elgaristekin ahapetik mintza ditarka orai Guria eta Hutzurigaray

III

Mikolas

Bo, aspaldiko Beltzaran! Jainkoak igortzen zaitu! Bain chuchen lanik enuen goiz huntan!

Beltzaran

Pero beroa heldu nitzautzu, jaun erretorari zaku bat ikatz ereman-eta harekin gosaldurik.

Mikolas

Jaun erretorarekin gosaldurik?

Beltzaran

Ez, berarekin, ez, bordinan gobernantarekin!

Mikolas

Eta, futcho, ageri du batere ez duzuela garzki gosaldu!

Beltzaran

Taltarreko, karrot olio, orotarik edan dugu-eta! Heup!

Mikolas

On dakizula, adichtidea. Bainan zer nahi duzu, ile hori mozte ala bizarra egitea?

Beltzaran

Ilea mozte naski lehenik, mamu zenbeit baituket hor alha!

Mikolas

Oro kondentatuko ditugu hiltzerat lehenik, gero egiteko bizarra!

Beltzaran

Eta orduan nik iduriko dut izarra! Heup!

Mikolas

Jaun auzapezaren alaba bera choratuko duzu orduan!

Beltzaran

Heup!

Mikolas

(Kadretarat hurbildurik, poliki:) Jaun hautarik bat othoiztuko dut haatik kadira huts dezan zu jartzeko!

Antzurigoray

(oihuka) Ni bederen enaiz mugituko ilea mozte ez dautazuno!

Guria

Are gutiago ni bizari hau erori arte!

Beltzaran

Nik banike astia, Mikolas!

Mikolas

(oihuka) Nor da etche huntan nausi? Beltzaran, zuri ba ilea moztuko dautzut eta bizarra eginen, bainan bi auzant hauk doazila nahi duten lekurat!

Bigak

Ausartak, gu?

(Eta tank chutiturik, bermitz ematen dire bigak ukabilak gora; Beltzaran ere ba heyeri buruz, aiesari ukabilka, Mikolasak besoa gelditu arte.)

Mikolas

Belzaran, zerbitzu bat egin behar dau-
tazu, nik ordainez bi pinta arno hoberenetik
emanen dauzkitzut!

Belzaran
Mikolas
Belzaran.

Heup! (gartzien dire berri berte ligak)
Padakizu nun egoten ^{an} Orro, herriko-muthila?
Ez dakit ba? Atzo egina daut azken ber-
bala, bederatz orenak ondoan athe aintzu-
nean "Andre Madalen" kantatu diotalakotz!
Errozu berehala humardino galdetzen dutala.

Mikolas

Belzaran

Zoazi salto batez
Salto batez ez dakit (salto bat egiten du) bainan
behar diren guziak eginen ditut. Bi pinta
arno! Heup! (Badoa hamporat).

Mikolas

(Jaurrik daudenetarat hurbildurik) Eta orai zuen
aldi jaunak: segur etzauzte bat eta bertzea
hemen atchemanen eguerdik!

Lutzurigaray
Guria
Mikolas

Amor ematen duzu beraz azkenean?
Ordu zuen!
Bada bertze zerbeit ordu duenik! Leku hau
huts dezazuen! Hortche baita musde Orro,
herriko-muthila, ikusiko duzu eian bethi toki
berean duzuen birika!
(Sartzien da Orro. Ernan gabe doa, orroaz mintza-
tuko dela ...)

IV

Orro

Her da berri etche huntan?
(Saltoan chutitzen dire Lutzurigaray eta Guria, eta
badoari Orroren alde alderat; Mikolas ere ba.)

Biruak
Orro

Her den berri?
Tchilik!... Mintza zairte bat bertzearen ondotik!
(Paper luze bat, bai eta alimalako lapitz bat atheratzen
ditu sakelatik.) Nork nahi du lehen mintzatu?

Hiruak
Oro

Nik! Nik! Nik!

Nik eta nik, oro ichilik! Bat mintza bedi bakarrik lehen! (Hurtzurigaray erki puntaz erakutsiz) Zuk iduri baturzu zaharrena, zu mintza zaitz beraz! Gortz hori doala jartzerat! Zu ere ba, Mikolas! Eta batek ez ber- break ez duzue berritz ahorik idekiko, nik erran arte...

(Guria badoa bere kadiran jartzerat; Mikolas mahainerat.) (Hurtzurigarayi orduan) Zure aldi da beraz!

Hurtzurigaray
Oro

Pi oren handi badu hementxe nagoela! Ichilik! Nik ez dautzut galdetzen zenbat dembora duen hemen zarela? Hasteko, zer duzu deithura?

Hurtzurigaray
Oro

Hurtzurigaray.
Her?

Hurtzurigaray
Oro

Zur-tzu-ri-ga-ray!

Nundik atheratua duzu izen hori? Hurtzurigaray!

Hurtzurigaray
Oro

Aitak utzia daut...

Gentsatzen dut ez duzula Italiako erregeak utzia! Etxaitela herriko muthil batez trufa, chukur baduzu! (Lapitzarekin zuri-zarra arizan ondoan.) Eta zure izena?

Hurtzurigaray
Oro

Kalichtro!

He? Ez dut egundaino izen hori aditu! Nor zinuuen aitatchi?

Hurtzurigaray
Oro

Donibane Mendiburutegiko nausia...

Errozu Mendiburutegiko nausiarri ene partez ez dadiela kura ere herriko-muthilez trufa eta, berbal bat nahi ez badu, bertze izen bat eman dezazun bertze aldian!

Hurtzurigaray
Oro

Erranen diot segurki.

Ichilik! Ez dautzut nik galdetzen erranen diozun ala ez! Bainan zertan zabilta zu etche huntan?

Hurtzurigaray

Hearen motzarazterat ethorria naiz...

Mikolas
Orro

(artetik) Eta ez du ilerik!
Tchilik, zu! Hurbil zaita mintzatu behar du-
zunaz geroz! Zer erran duzu, ilerik ez due-
la?

Mikolas
Orro

Ondorik ez du!
(orroaz, bi besoak zabaldurik) Hori da! Etzai-
aski nitaz irri egiteko hurtzurigaray eta ka-
lichtro deitzaea, ilerik ez uzanki-eta ilearen
mozterat behar du oraino Akelavverat
ethorri! Nunbeit bada zerbeit!

Hurtzurigaray
Orro

Deusik ez da nihun!
Zer, deusik ez dela nihun?

Hurtzurigaray

(birj-birja) Ez du balio hola kecha zaiten! Hura
zuri ere zer erraten dautzut, futcho! Hearen
mozterat ethorri naiz hunat eta enaiz hemen-
dik joanen ilea mozturik bairik!!!

Orro

Ez joanen? Ez joanen, zu? Ez diozula herri-
ko-muthil bati amor emanen? Berbal bat
egiten dautzut beraz (eta bere lapitza ahoan
busturik, mihia kampoan ziru zanna hasten da) Ez
duzula amor emanen? Nik erakutsiko dautzut
zer den legea!

Mikolas
Orro

Ederki egina!
Tchilik! Ez dautzut zuri ere galdetzen ongi
egina den ala gairki! Kalichtro hurtzurigaray,
berbal bat baduzu, zoaz jartzerat!

Hurtzurigaray
Orro

(Hau badao irriz) (Gibeletik Orroki) Irri egiten
duzu oraino? Bigarren berbal bat egiten
dautzut, herriko-muthil batez irri egin duzu-
lakotz! (Zuri zanna hasten da berriaz)

Hau bederen ez dut ebatsia!
Tchilik! Nik ez dautzut galdetzen ebatsia
duzun ala ez! Zoaz lasterko jartzerat!

(Hurtzurigaray badao) (Arte hortan guria
beha baitago, irriz hura ere, Orro oihuka hasten
raio) Eta zuk zer duzu zure aphi harmatu
begiekin neri behatzen? Hurbil zaita hunat
(Hurbiltzen da guria) Zer dituzu izen-deiturak?

Guria

Orrro

Guria

Orrro

Guria

Mikolas

Orrro

Mikolas

Orrro

Mikolas

hutzurigaray

Mikolas

Orrro

hutzurigaray

Anton Guria.
 (Lapitza aho husterik zuri zanna) Nun sortua?
 Amerzpetan.
 Amerzpetan? Etxinen bertze guziak bezala
 Akhelarren sortzen ahal, zu?
 Nik ez dut naski hortan hobenik!
 Patere ez dakit! Hertzarat ethorria zinez hunat?
 Puzarraren jaun huri eginarazterat!
 Eta ez du bizar ondorik!
 Tchilik, zu! Her erran duzu, ez duela bizar
 ondorik? Ederki! Hure laguntza hori bezala,
 Anton Guria, zuri ere egiten dautzut berbala!
 Zoazi partzerat! Eta laster gero!
 Her herriko muthila dugun Akhelarren!
 J-chi-lik, Mikolas, zuk ere berbal bat
 nahi ez baduzu, herriko muthilari behar
 gabe dembora galarazirik! Eta errazu? Jaun
 horiek bi oren huntan hemen direnaz geroz
 eta hortako ethorriak, bate berehala ilea moz-
 tuko diozu, bertzeari bizarra eginen! (hutzur-
 igaray erakutsuz) Hurek ez du ilerik, egizu
 bizarra. (Guria erakutsuz) Horrek ez badu bizarrik,
 motz ilea! Eta zure onetan mugri hortik!
 (Haichtur eta bizar nabolekin Mikolas badao or-
 duan jarririk dauden bi kampotarnetarat.) (Orrro
 karat eta hunat abiatuko da, Kopeta beltz.)
 Jaunak, zoinen aldi da beraz?
 Ez dugu guziak eta nik gehiago batere zure
 beharrik: milesker. (Eta chutiturik ilea estal-
 tzen dion larru zuri zaharra kientzen du) Huzten
 duzu?
 Her da ichtorio hau?
 (tente beha) Huzurgarren berbal baten ondolik
 zabiltra?
 Patere, Orrro! Nere idazlea vniq dogoela ikusten
 duzu! Bada zeren segurki. Huna nor naizen
 ni, viakur zazu paper hau! (Paper bat ematen
 dio eskuetarot eta dal dal dal ikara lotzen zait Orrro)

Oro

Her, etzare Turtzurigaray Kalickto, erran dautzun bezala? Bertze berbal bat eman beharko othe dautzut?

Turtzurigaray
Oro

Ez dut uste! Irakur zazu paper hori!
Jesu! Maria eta Josepe! Baionako hede-churien aintzindaria! Galdua naiz!!!
Ni ere ba!

Mikolas
Turtzurigaray

Ez bat ez bertzea, adichkideak! Mikolas, nik dautzut zuri barkamendu galdetzen, goizalde guzua hola galarazirik! Baionako herriko muthel on ^{bat} nindabilalarik, Orroren fama aditu dut, eta nere begiz ikusi nahi izan dut zer herriko muthel den!

Mikolas
Turtzurigaray

Ez ditake hoberik! (bertze ideret beha) Edo tzarragorik!
Ez, ez ditake hoberik! (Estua Kachketan, Orok salu katzan du aintzindaria.) Hemendik ilhabetu bat gabe, aintzinamenduz Baionan izanen da!

Mikolas
Turtzurigaray

Ez baititake ohore tipia Akelarreko herriarentzat!
Oro, zure emazteari egun berean berri on hori ematen ahalko diozu! Pentzateko da haatik azken egun hantzen berbet berbal eginen duzula oraino Akhelarren! Gu, bagoraz orai! Agur!

Mikolas

(Guzua eta Turtzurigaray atheratzen dira, Oro estua Kachketan dagoela)
Hau da egun ederra, Oro! Akhabo egungo berbalak!
(Hainbertzenarekin Beltzaran sartzen da Andre Madalen Kantatuz)

Oro

Legea lege da, Mikolas! Huna hemen jada baten bidea!
Beltzaran, berbala egiten dautzut mozkorra ibilki zarela bidean!


Beltzaran

Eni zentako eman dautet edaterat?

Oro
Mikolas

Nahi duzu bigarren bat?
Egundaino egia izanen da beraz, arrain handiek Janen dituztela tipiak! Guzo, Beltzaran!

Herbertzari



Olzalenizian

— Jostarazleak —

Mayi, hamazazpi urthe.
 Johana, ahizpa, hogota bi urthe.
 Kattalin { arbasoak.
 Manech {
 Ama, berriogita birtz urthe.
 Ama Birjina.
 San Josep.
 Jesus. Haurra.
 Bi artzain.
 Hirur Errege Magoak.

Ohartgarriak.— Arbasoak bi demboretakoak dire, Manech
 baintz Kattalin baino lehenagokoa: jauntziatarik ageriko da
 aise. Hirur Errege-magoak nahi den bezen irri-egingarriki
 tinta eta jauntz dituzke. Errian gabe doa Johanak orain jauntzi
 erhoenak izanen dituela soilcan; Mayi aldez chimpleki eta polliki
 jauntziko dela, Eskualdunki.
 Ez dugu uste eskual-jostagailu molde bereziko hau nihun
 hola-hola ager ditakeela, Edmond Blazy Ustaritzeko
 jaun aphez-nausiaren kontseilu eta laguntzak gabe.
 Nun eta nola molda oro, harek errian dezake bakarrik.

Olzaberrian

Eskeual-gostagailua

1

(Kalaputa gorri bat lehenik kampoan. Gero, Jaurian Mayi sartzen da. Selhaururat.)

Mayi (athetik) Funtsean, Johana, eginen dun nahi dudan bezala! Ba, hoo jostatzerat eta utz dezadan othoi bakea! Hoo ... Hoo! (Eta tanpalakoan athea hesten dio sudurrerat, bera berehala hipaka nigarrez mala baten gainean jartzeko.)

2

(Johanak athea zabaltzen du berehala eta sartzen da. Jaurititik aurrera du nungo choriatarik den. Begitartea chevu-gorri-beltzez tintatua du. Argi bat eskuan baitu, akerpare laster ohartzen da.)

Johana No, ederra dun, hamazazpi urthetan nigarrez! Ber egin dainat bada, nik? Erran? ... Erian ba?

Mayi Nik bezen ongi badakin zer dutan! Bainan hoo hure neska eta muthil tzarretarat! Hoo, ez haut gehiago begien bichtan ikusi nahi!

Johana Ber nahi tuke, ni hogota bi urthetan hemen egotea astagna bat bezala? Ez, eiki! Hori dun hire min guzia, jeloskorra!

Mayi (Jaurian chutiturik) Ni jeloskorra? Ez, Johana, ez? Bertalde zertaz behar niken jelostu? Hure chapel irri-

egingavri hortaz? Ala matheletan ezarri dudan
irin eta tinta aholkegarriaz?

Johana Ha! ha! ha! ha! Nik badinat bertzerik, gaichoa!

Mari Bai, Donibane eta Miarritzren adichkide zantzaul
eta sinhesterik gabeko batzu!

Johana Eta zer oraino? Ha! ha! ha! ha!

Mari Oski kopeta, hi larre hautako ababa, Miarritzeko
eta Donibaneko aberats galdu batzuen josta
eta dantza-tokietarat joateko! Horra zer dudan
nik baino gehiago! Parisen izatu haurzela-eta, uste
dun hiretzat oro haizu direla! Ni hitaz jelos,
fu zekhin!

Johana Zorua!

Mari Bai, zorua eta morua nahi badun, bainan horra
egia!

Johana Ez, ez dun hori egia!

Mari Ez, elizarat joaten haizen bakarretan, orduan
hire chapela eta tintak khendu behar baititun
jaun erretoraren beldurez eta kavrikako jen-
dearen ahalgez!

Johana Aho ichilik, ergela!

Mari Oichtean zorua, orai ergela, gerochago zer atheratuko
othe dautan? Bainan nahi dudan eraman ere, ez
nun den gutienekorik khechatuko! Hi ez haiz berdin
gehiago hemengoa!

Johana Ni ez hemengoa, auzarta? Bertako bada?

Mayi Obzaberriari begitarte guti baition, Parisetik itzuliz geroztik! Nork ikusten hau sekular oilo gaiehoen barkatzen? Ez dun gehiago behietarat hurbildu nahi, hire zangar pollitak zerbeitz orra beldurrez! Ura onetan nahiago dun hik orratu!...

Johana Ba, naski!

Mayi Eta, trufa baino musika handiago dun oraino! Harrihen nun ez baitaun, ama kechatzen zauna-larik bezala, hire erdarazko kantu ikaragarri heterik bat hasten?

Johana Kantu ikaragarriak!..... Kantu ikaragarriak! Oro diren bezala erraten dituztelakotz! Gaieho Mayi, ez gaitun gehiago hamasei edo hamazazpi garen mendean! Geroztik urak egin din bide! Jendek ere ba! Ora, oro Miarrutzeke, Bordeleke eta Pariseko josta-lekuetan, ikusiko ditun aphezak eta serorak salbu!

Mayi Ez dinat sinhesten!

Johana Sinhet dezaken ikusi duena! Oro, dantzari gogotisko ari ditun! Bainan etzanala uste izan josta-lekuetan ibiltzea, dantzatzea gaizki direla! Ez din gauzkiea egiten egin nahi duenak baizik!

Mayi Ez din hori erraten haatik kongregako serorak! Jentsatzen dinat, ez baita egundaino hirietan ibili! Eta, no, luna egia guzien buruan: ni berri² ere joanen nun ba hirirat, ez baitinat batere mutchurdin hiltzeke chederik!

Mayi Eta uste dun hiri horietan hobeki atxemanen dunala senhargei bat?

Johana Hori ez, jakin!

Mayi Badun naski norbeit begietan jada?

Johana Nardatzen nun, no, azkenean hire haur sola-
sekin

Mayi Nardatzen? Jollita ahol dun beraz hire
senhargia! Janfutre bichardun zenbeit
segur!! Ha! ha! ha! ha!

Johana Merezki huke begitartearen betheko talo bat, no.

(Hainbertzenarekin Hampotik beribil baten
turruta hasten da orro eta orro.)

Mayi Hoa laster, Johana, horteko ditun hire lagun
pollitak ... eta menturaz senhargei bichardun
hura ere?

Johana Allo, Mayi, ez dun samurtu beharrik: ez dinat
oraino senhargei behar kandirik, nik, badinat
nun josta! Adi, banoan!

Mayi Bai, hoa! Othoi sar hadi haatik aita eta ama
baino lehentchago, erasiaruk ez dezatedan
egin hi hola utzirik!... Bi orenak gabe, hein?
Adi, hire itsuskerien gatik!

Johana Ba, ba, ba, haurra!

(Eta badoa, pimpurina bezen arios gau beltzari buruz)

3

Mayi (lehoan) Jada, hirur lagun beribilean! Borda-
berriko bi neska tzar hek eta Jatruko Amerika-
noren beribil-gidari omen hitseko hura! Eta

hain chuchen haren aldean jartzten da Johana!
Gaicho Johana nolakatu daukun Parisek! Nola
arindua den!

(Eta leihoo utzirik, malaren gamean jartzten da
berritz, argia tipitu-tipituz hiltzen delarik or-
duantche.)

Mayi.

(bere buruarekin elheketa ari balitz bezala) Harasko
ditazke jada aita eta ama! Haitzeko patarrean
gutienetik! Oi, zer gauerdiko meza ikusi behar
duten! Zer kantu choragarriak adiluko dituzten!
Eta zer mundua hurbilduko ahal den mahain
saindueta rat!

(Hemen ihiltzen da, gerochago hasteko berritz.)
Johana. eta berritz orai Semperetik haratago di-
tazke, behar bada jada Azkainen! Donibanen
nola-nahi gauerdiko! Zer gauerdiko meza
entzumen duten hek ere, nahi badute! Gero, zer
aphairu toa! Eta gero, gair, kirik egin gabe josta
eta dantzaz ditakenaz geroz, zer orentto go-
choa Donibaneko josta-teku argitu-argituenean!
... Eta, ni hemen, bakarrik, ihumbetan! Oro,
oro kampan! Ni bakarrik preso!

(Nigan egiteko gutuzia batek hartu balu bezala badon
lehorat. Handik behako bat eman orduko itzultzen
da haatik. Orduan ohartzten da Kattalinen iduri edo
atchurari.)

Eta zuk, amatto, zer erraten dautazu? Johanak
erran dautan bezala josta eta dantzaz othe
ditake, pimirinaz argian bezala, hegalik erre
gabe? Bai erradazu, amatto! Ez duzu ezetz erraten
zuk ere? Bai, bai, azken eta azken aldian du
beroz ni Eguberri gau batez etchean nagoela!
Aitamek, ni uzteko orde, berek joan behar badute
mezarat, ni joanen naiz hauzoko muthikoekin
jostatzerat, jaunkoaren gomendio etchea utzirik!

Eta bertzalde zertako ez dut nik ere Johanak
bezala Parise ikusi behar, ... Parise jastatu behar!

Amatto, beharbada zuk ere ikusi duzu Jandise!
 Beharbada, zuk ere bazintuen josta-lagun
 maite zintuen batzukan edo hemen?
 (Haratchago den Petlemeko etcholari beha, birzi biria)
 Nek horra zer dutan lagun! Hori bakarrik gau
 beltz huntan!
 (Nigaruz jartzen da molaren gainean, burua bi
 eskuen artean)

L

(Hametaka orenek jotzen dute sukaldetako orenean.
 Bi arbasoen itchurak argi batek inguratzen ditu,
 Mari orai lo bezala dagoelarik. Musika ezti bat ari
 baitzen, hori bururatu orduko, bi etchuren gaineko
 oihal argalak altchatzen dire. Kattalin higitzen
 da, harat huntat mugitzen eta ... munitzitzen gero)

Kattalin

1931! Mai, mila bederatzi ehun eta hogoitak
 hametaka da, ezen ongi gogoan dut joanden
 urthean Mendiburutegiko egutegi batek 1930
 ekartzen zuela! 1931!

(Ghulitzen da eta arras agertzen orduan) Deus
 berririk ikusi behar othe dut aurthen? Eta zer
 othe? Go! Eta Manech lo dago oraino! Gaicho
 gizona!

(Tapa tapa hurbiltzen da Manechen ganat) Hoo,
 Manech, iratzar zaitte hortek, eian!

Manech

Jesus, Eguberru da? Zer loa egin dutan urthe
 huntan!

Kattalin

Uste nuke, eta iratzarri ez bazintul, ez dakit
 batere!

Manech

Milesker, Kattalin eta ... lehenik, agur!

Kattalin Bai zuri ere, Manech...
(Bemen bi arbasseri elgar besarkatzen dute)

Manech Zenbat orenak othe dituzu?

Kattalin Ilhargitik iduri luke gauerdia oraino harasko dugula!

Manech (irri maltzur batekin) Baginuke beraz moko-kaldi tipetto-tipetto baten egiteko dembora?

Kattalin Zu bethi bera haatik, Manech!

Manech Zer nahuzu, ez da ene adinean ez-eta daki-zun toki hartan bevitzen!

Kattalin Beraz segur~~in~~ naiz joanden urteko lelo bera errepikatuko dautazula: Nere demboran hau, nere demboran ~~haua~~! Oro eder baitziren orduan, Manech, Parisen armatu zuten lepo mozteko tresna latzgarri hartarik hasiz

Manech Bertzerik egin dute, ori, zure demborakook! Behinik behin, ~~huna~~ zerbeit niholaz ezin barka dezoketadana: Bertako utzi zituzten erortzerat Urtauritzeko. Bilgarriak? Bertako ez zituzten beren eskual-makulu puntan zaindu? Bertako utzi zituzten Kaskorniak Eskual-Berrian sartzerat? Zorigaitzen zorigaitza!!!

Kattalin Bai, hala da hori, Manech, eta aitortzen dautzut gogo onez gauzki dela atzean lur puchka tipienaren saltza! Olzaberruko gure umek ez ahal dute sekulan holakorik eginen?

Manech (malari-baha) Zo, norbeit! (hurbildurik) Neskatcha bat! Eo dago! Zer haur maitearen itchura duen!

Kattalin Iratzar-arazten baginu?

Manech Zuk egizu, Kattalin, nik baino esku ezteago duzu.

(Kattalin belhaunikatzen da eta polliki polliki eskua hartzen dio Mari, erpaun puntatik aspaldiko "so, lo nere maitea" kantatzen diolarik eta kantua bururatu deneko Mari iratzartzen da.)

5

Mari Her da mirakuitu hau? ... Oi, nun naiz? Nor zaituztet, zuek? Bainan iduritzen zaut aspaldi ezagutzen zaituztedala? Her ene aitamen egitea duzuen! Othor erradazue bada nor zaitzen?

Kattalin Ni, Olzaberriko Kattalin...

Manech Olzaberriko Manech ni beritz, ...

Mari (ikarretan, itxura ziren tokirat behatu... eta) Oi, oi, oi! Bainan zuek aspaldi hilak zineten bada? Eta ene eskuek hunkitzen zaituzte! Oi, ama! Hil naiz beraz... hil ni ere?

Kattalin Ez, maitea, ez! Bizitza haiz eta osagarri ederrean seguriki! Bainan Eguberri-gaua dun eta gau huntan, fagore berzi batez, Manech eta ni Jaunkoak uzten gaiten Olzaberriat, hemen Jesus-Haurra adora dezagun, guk ere!

Manech Haurra, hire aspaldiko arbasoak gaiten Kattalin

eta ni; ez hasi lotso! Eta hain maite dinagu
urthetik urtherat hunat itzultzea, hemengo
chokhoen berritz, ikusteko, eta ahal bada gure
ondokoeri kontseitu on zenbeiten emateko!
Zer dun izena, haurra?

Mayi Mayi. Eta Olzaberriko alaba naiz...

Manech Ez dun bertze haurdierik?

Mayi Anaia bat, Piarres, eta ahizpa bat, Johana....

Manech Ohean ditun? Eta hire aita eta amak?

Mayi Aita eta ama gauerdiko mezonat joanak ditut
duela orentsu bat, baita bide hemendik elizarat!

Manech Hi sortu gabe bazakinat hori, Mayi! Hameka
itzuli eginik nagon segurki larre hautako bidech-
ketan!...

Kattalin Bidechketan? Gizona, aspaldi badute hortike bi
urhatsetan bide-berri eder bat!

Mayi Eta zer bide-berria! Beribilak ere aise badabil-
tza-eta hor gaurdi!

Manech Beribilak? Beribilak erran dun? Zer ditun
horiek? Gure demboran ez huen orgarik baizik!
(Mayi harrutua dagokiela oharburuk) Funtsean,
mende berri, molde berri!

Kattalin Segurki, Manech...

Manech Bainan, Mayi, atsegin niken Piarresen ikustear:
uratzarraraz baheza?

Mayi Ez da ohean...

Manech Nun dun beraz?

Mayi Ez dakit, bainan Baionan ditake gauerdiko mezan!

Manech Baionako mezan? Olzaberriko semea etzaion gehiago Uztaritzeko meza aski? Eta aitamek hori onhartzan zioten?

Mayi Hitzeman diote segur meza entzunon zuela!

Manech Ah, gaicho Mayi, hi baino haurrago ditun hiru burhasoak! Ez, ez dun han meza entzuteko chedetan gaur Baionarat joan hiru anaiarik! Bertze chede zerbeitak zabilkan dohakabea han gaundi! Eta ez dinat Johana ere hemen ikusten? Baionan dun bederen hura ere?

Mayi Johana Donibanen da adichkide batzuekin.

Manech Zer zinan egiteko Donibanen!

Mayi (dudatu ondoan eta amas ikhazan) Dantza arras maite baitu, hango dantza-toki famatu batetarat ereman dute hirur adichkideek!

Manech Horra oraino adichkideetasunak? Elgar galtzeko adichkitzen ditun beraz oraino gazte dohakabeak?

Mayi Nik, deus ez dakit!

Manech Hiki ez dakin, bainan hiru burhasoek bederen behar liteken jakin!

Mayi Bainan Johanak seguitate daut ez duela demendreneko gauzirik egiten, ororen biktan ari direla bethi dantzan!

Manech Ba, ororen bichtan ariko dun dantzian gaur ere, nikhunereko muthul tzar eta galduen besoetan zalapartaka! No, Mayi, erron hire aitari ere partez hori onhesten duen aita, ez dela aita, edo ez duela bederen aitaren izenik merezi...

Kattalin Zer ikusi eta aditu behar den haatik!

Mayi (gero-ela Maratuago) Bereak eta asto beltcharrenak erran diozkat segurki neronek Johanari, bainan ez dakit deus egitekorik gehiago baden harekin! Jarisen izanez geroztik Olzaberria terra pretondegi zais; gauak egun egunik bethi kurri dabila, nunbest phesta bat badela ikasi dueneko! Eta hitz dautzut mezen orenak baino hobeki gogoan atchikitzun dituela zinemakoak!

Kattalin Zertako orenak? Zi-ma-zi-ni-koak? Deus onik othe dun hori ere?

Mayi Lehengo jaun bikarioak bat egiten zaurkun bizkitartean!

Kattalin Ez ahal dun haatik hirietake zini edo zimina, harena bezalakoa!

Manech Etrazula duda, Kattalin, eta beldurra dut Johanak ez duela gapata handirik higate hartarat joateko!

Mayi Hori batere ez dakit, haurregi nintzen orduan Johanari jarraitzeko! Berhalde ordukot ariatzen hasia onen zen! Nik ez dut batere haren hari bera haatik! Nik ez ditut ezpainak, mathelak eta bekundeak, miraitaren aintzinerat joanik, tin-

tatzen! Ni ez nau gauak atxemanen bidean, are gutiago karrikan, muthiko guziakin tira-biraka! Nik elizan gogotik kantatuko ditut hango kantika polletak, bainan nihork eni ez daut adituko Jari-setik edo ez dakit nundik ethorri erdal Kantu ergel eta arin hetarik! Eta aldiz Johanak ez du gehiago bertzerik ezpainen puntan!

Kattalin Oi, Jesu, Maria eta Josepe! Zer deratzen oraino, Mayi?

Manech Haurra, etzakinat oraino burhasoz gehiago zer erran! Hemen nagon bulta huntan Eskualduneri bereri ez othe zaioten burua ttipitzen hasi! Hurre erranetarik ageri dun oraino etheko-alaba hobere-nak gure demborako buhamisak baino areago direla!

Kattalin Errazu berrietz Manech! Zer zorigaitza!!! Painan berechkunde bat egizu halere, Mayi ez da Johanaren idurikoa!

Manech Ikusten dut, ikusten, Kattalin! Eta jakin dezala anoia Jannes eta ahizpa Johanak gau huntan hemen bakarrik utzi badute, ez duela deusik galdu: Jainkoak egun batez emanen dio bere obedientziaren saria!

Kattalin Jainkoak egun batez, eta nik orain berean, hortchet beka dagon Jesus-Haurra lekuko!
(Musika bat ez tiki hasten da hainbertzenarekin.) Horia froga Jesus-Haurrak onhartzen duela ene eskaintza! Beraz, Mayi,

idekan berehala hire aldeko mala hori:
barnean kausituko dun kapusail bat
ederra eta ene demborako mokanes
pollit bat. Hirezat ditun, haurra...

Mañi Milesker segurki, amatto! Ondikotz, orai
ez da gehiago holakorik egiten!

Manech (berak paper bat malatik atheraturik) Eta
egiten othe dun holako paperik?

Mañi Ez dakit zer den!

Manech Hau dun paper bat, hire arbasoeri errege
batek emana! Aitak atchik dezala! Huri
esker sekula-santan Kaskoinak ez
ditun Olzaberriaz, diruaren puntan ere,
jabetzen abalko. No! No, haurra!

Mañi Oi, zer zori ona!

(Musiko gorachago hasi da eta Betlemeko etchola
argi batek inquiratzen du betbetan. Hainbertzenarekin
gauendi aditzen da bai eta nuntetik Eguberriko Kantu
erti bat. Manech berehala belhaunikatu da, eskua
etcholako alderat luzatua: Kattalin ere ba. Mañi chutik
egonen da huren aldean.)

6

(Orai argia zabal-zabala da etcholan. Musika
ichildu da haatik eta artizan bat da orai hasiko
salto-motchen ematen bere chirularekin. Berehala
Manech chutitzen eta hiruzpalau piko ematen ditu. Iduri

luke Kasik, chutiturik bertze hainbertze egun nahi
lukeela Kattalinak. Onduanche Jesus-Haurra higitzen
da eskuan eta ezker, eta hurbiltzen zaio Ama Birjina.
Hemendik goiti Chuberoko pastoraletan bezala oro min-
tzatzea, Kasik ederrago litake).

San Josep Jesus-Haurra iratzarri da! Artzamek beren chiru-
la pollitekin agur erran diote! Manech, Kattalin
eta Mari Olzaberrikoak, orai zuen aldi!

Ama Birjina Bai, Eskualdun maiteak, hurbil zaurte zuek ere
zeru-lurren Erregea, Eskual-Herriko Erregea zuen
bihotz kartsu eta garbitan adoratzeko!

Birruak Agur beraz zeru-lurren eta Eskual-Herriko Errege
maite-maitea! Agur zuri ere Maria graziaz bethea!

San Josep Hurbil zaurte oraino gehiago! Baduzue segurki
Jesus-Haurraren ganat hurbiltzeko dretchoa, zuk
Manech, egundaino Elizaren eta Herriaren alde
baizik gudukatu nahi izan ez duzulakotz; zuk Katta-
lin, bethi zure Etchea maitatu eta ongi zaindu duzu-
lakotz; eta zuk Mari, zuk ere segurki arbasoen
urhats bereri jarraitki nahiko baituzue zainetan
odol chorta bat duzuno!
Bainan erradazu othoi, Mari, nun ditutzu bada
aita eta ama? Nun ditutzu ere anaia eta ahizpa?

Mari (durduratu) Nun dituelan?

(Orai Ama Birjina ere ateratzen da bere etchuraren
gibelatik eta bi eskuak pausatzen ditu Mariaren buruan)
Ama Birjina Ez, ez duzu batere ihardesterik! Jesus-Haurrak oro
badakizka bardin! Bainan zu zeroni ez othe zare
urriketan etchean egonik?

Mari Ama Ona, ba nik ere elizarat joan nahiko nuen,
aitak eta amak bezala!

Ama Birjina

Ez, gau huntan zure tokia, hau da! Hau bakarrik! Etche hau! Gau huntan eta gero ere eta bethi!...

San Josep

Mayi, badakizu zer diren Jiarresen che-deak? Zu bezala etchean egonen othe da hura? Etchean bethi?

Mayi

Beldurtzeko da ezetz! Uste dut Uztaritzeko larreak baino maiteago duen Pauonako hiria!

San Josep

Dohakabeak hiria maiteago? Aitarnek zertako ez diozkate bada, othoitzekin batean, irakutsi lehengo kantu eder hauk?

- "Pashevuan sortua bethi han dagola;
- "Etraio ur eginen barnean odola!
- "Ochala egon banintz ni ere mendian,
- "Ez nuke hoin ardura nigarna begian!"

Ni, zurgina nintzen, Mayi, eta zurgintzatik bildu dut egunean eguneko ogia; zurgintzatik hazi eta jauntzi nere Espos saundua eta Jesus-Haurra! Bertako beraz egin behar dio ukho Jiarresek laborantzari? Lehen ikusten duzun aldiari, eme partez kanta zotzu bertze kopla pollit hauk ere:

- "Laborantza gauza handi
- "Eta botheretsua!
- "Bartan da lanean ari
- "Jaunkoaren eskua,
- "Gizonaren eskuari,
- "Berma dadin, lothua!"

Bai, haurra! Laboraria laborantzan, zurgina zurgintzan, artzaina artzaingoan: horra jaunkoaren legea... eta jaunkoaren laguntza nahi dutenek hartu behar duten bide bakarra!

Jesus-Haurra

Egia hori, Aita! Ezen Jaunkoak errana da: Dohatu, beren etchetan daudenak! Dohatu,

etcheke lanetan ari direnak! Dokatsu,
sor-lekhua guzien gainetik maite dutenak!
Ai, Eskualdun guziek ere sinhets balezate hori,
join maitagarriago titaken oraino Eskual-He-
ria! Neskatcha, zu bederen etzaitela chora:
behinere etzazula Etehe hau utz, hoberik atche-
manen duzulakoan! Eskualdunek berek
errana da hitz hau, egia handi hau: «Baigorriin
bachera urhez, ni harat orduko, lurrez!» Ez
ahantz....

7

(Jesus-Haurra ichildu deneko, harrabots handi bat
adutzen da kampoan, manto urhats, pampalun eta
oihu. Orok behatzen dute aldi hartarat.)

San Josep

Non dugu harrabots hau tenore huntan?

(Berege-Magoak sartzen dire leihotik: Melchior,
Amerikanoa, urhezko unte bat eskuan; Gaspard,
Alemana, jateko zerbeit... bai-eta Kanon batekin;
Baltazard, Paristarra, oihal batzu, liburu zerbeit
eta itsentsu puska batekin.)

Ama Perjina

(lotsatua San Josepen alderat joanik) Ai, ei, ai,
zer ditugu orai tresna hauk?

San Josep

Holako jauntzietan zer nahuru izan diten? Herur
Kaskoin handi!

Manech

(Makhila eskuan eta kopeta beltz, Manech Jesus-Haurra
alderat joan da, zaintzeko berata) Herur Kaskoin? Segur
ez dabilzka beraz deus onek hemen gaindi? Orai arte
bederen ez dute Eskual-Heeria ondu! Bainan egin

dezatela urhats bat hunatago, kalitzen ditut!

Jesus-Haurra. Nerone, ere bitchi zaut Kaskoinak Eskual-Herrirat hola ethortzea, bainan utzatu, Jannes, nik ez dut zure makhilaren beharrik horieri beren egiak errateko! Zer nahi duzue, jaunak?

Melchior. Agur, Nausia! Munduko egunkari jakinenak baititugu Ameriketara, duela bi etabete ikasi dute gau huntan Olzaberrinat ethorri gogo zinuela ... eta hemen naiz urhezko untzi hunen zuri eskaintzeko lasterka ethorria! Othoi, hor zazu!

Gaspard. Ni aldiz, Alemaniatik heldu nitzantzu gochokeria zenbeitekin! Kanoi hau ere eskaini behar dautzut haatik, Alemania dela erresuma guzietan handiena eta azkarrena orok jakin dezaten!

Baltazard. Ni, Jarustarra naiz. Jarise baita ederigailu eta atsegin guzien herria, huna orhal eder batzu, huna liburu gustagarri zenbeit, huna itsentzu pichka bat.

Jesus-Haurra. Egia zor dautzuet hirueri, jaunak! Eskual-Herrirat ethorri zaitze urrundik zuen dohainekin! Ez dut maite Eskual-Herria kempotarren oinetakoez zekhin dezaten! Ez dut maite Eskualduneri nihor nihundik ethor dakioten, beren diru eta espantuekin buruaren itzultzerat! Eskualduna kempotar guziak baino gehiago da, berez bere! Ez du zure sotasaren beharrik, bere lurrik aski ematen dio! Ez du libururik batera nahi, duenetarik Kampos! Bere libururak baditu eskuanaz, hek irakur detzala! Eta guziz, ez du kanorik nahi! Eskualdunak bakea nahi du eta bakea bakarrik, etchean eta herrian! Pax hominibus! Zuek, berehala bazpazkete beraz ethorri bidetik: hau ez da Kaskoien herria: Eskual-Herria da, Eskual-Herri eder, garbi eta maitea! Koazte!

Manech

Jesus Maitea, nahi dizu makhal hune kin bidea erakuts dezotetan? (Euzgeak badoaz)

Jesus. Hauina

^{ellanech}
~~Jesus~~, zuk ere etzazula ahantz munduko indar guziak baino handiago dela Jainkoaren indarra! Bainan ez naiz gau huntan Olzaberrirat jautsi zuri mintzatzeke. Hortchet ikusten dut etche huntako abata. Entzun detzala erraterat ethorri nitzaizkuon hitzak!

Mayi

(hurbildurik) Dena beharri nago, Jesus Ona!

Jesus. Hauina

Mayi, ez dizu ni baino adichkide hoberik, sinhets nezazu beraz. Bethi maita zazu herri huntako eliza, bertze eliza guzien gainetik! Nihun ez dautzu Jainkoak hortan baino laguntza gehiago emanen! Ez eta ere hor bezenbat! Maita zazu zure etchea! Jainkoak hemen sor-arazi zaitu, hemen bizi zaiten, nihundik ahal baduzu! Egun batez anaiari edo ahizpari hemen leku egin. Behar barziniote, etzaitela urrunegi joan, bertze etche baten bitxia! Hemeng eta inguruetako airea baizik ez da on zu bezalako neskatcha batentzat! Dena dela, sekulan etche hau ez dadiela eror zure faltaz! Horra ene azken hitza!!!

Mayi

Milesker, miletan milesker, Jesus Maitea, eman dauzkidatzun kontseilu onez! Bihotzaren barne-barrietik hitzematen dautzut kontseilu on horieri jarraitzeko nitzaioleta, bethi! Bethi, eta zer-nahiren gatik! Bai, maitatuko dut herri huntako eliza! Bai, maitatuko eta ene indar guziez lagunduko dut etche hau! Ez, ez dut herri hau sekulan utziko hirirat edo bertze norat-nahi joaiteko! Eta agintza horren berme, huna paper sakratu bat, huna lore batzu, huna ene bihotz guzia! Har zatzu ...

(Argia hiltzen da berri, oro suntsitzen direlarik
ilhumbean. Manek eta Kattaln bera bada, beren
hasteko tokietarat.)

Mayi Her, zuek ere bazoarte? Othoi, othoi, ez joan? Zer
egin behar dut bakarrik? Oi bakartasunaren
beltza!

(Bera badao malaren gainerat. Harribotsak kam-
poan lehenik, gero barnean. Ama sartzen da,
Johana ondotik.)

Ama Nun dugu Mayi?

Johana Ez duzu ikusten hortchetan, lo? Ederra dugu,
ni sukaldean nindagoelarik, hori hemen! Eta
zer loan oraino! Ha! ha! ha! ha

(Biri horiek berebitarazten du Mayi)

Mayi Lo, Ama eta Johana! Eskerrak Jainkoari!
(erker eta eskuin beha) Jainan nun ditut nik
doidoia lagun maiteak? Zer gau ederra
iragan-arazi dautedan?

Johana Burutik joan zauku naski neska hau!

Ama Zer deratan, Mayi?

Mayi (Johanari) Eta hik nun ditun bardako hirur
gau-chori hek?

Johana Zer gau-chori? Ez nun sukaldetik mugitu,
ni!

Mayi Amets egin othe dinat, bada?

Ama Ba, habil oherat, no! Badinat uste lo ga-
beak ez daunala onik egiten! Ni banoan!


Mayi

(Johannaren ganat hurbildurik eta Kapusaila
lurrean erakutsiz) Amets egin, Johana? Ez, ez!
dinat amets egin. Horra frogā, dohakabea!


(Thuntan akhabo da)

+
A.M.D.G.

27
26
25
24
23
22
21
20
19
18
17
16
15
14
13
12
11
10
9
8
7
6
5
4
3
2
1
0



0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 32 33 34 35 36 37 38 39 40





27
26
25
24
23
22
21
20
19
18
17
16
15
14
13
12
11
10
9
8
7
6
5
4
3
2
1
0

0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 32 33 34 35 36 37 38 39 40

Zerkitzari?

Ardia eta zakurra.

Ardia eta ora adiskide minak

Bethitik izan direnak,

Egun batez hari giren

Bere bigi tristearen

Bat betzeari kondatzen.

Ah! zerran ardiak, nigarrak darizkit

Eta bihotza latztenzait

Gogoratzean saminko

Gure bien zorteari.

Darraizkon atsekabeak;

Badituk segur hireak.

Bethi gizonen esclabo,

Eskeigabe batzu adoratzeraino,

Bethi leyal, samur hekien meneko.

Hire zorbiztu khartsuen

Saritzat ezduk ukhaiten

Ardura ukhaldirik baizik:


Horiotzea gainetik.

Ditudan arren nik aldiz


Begititzen hek urthe guziz,

Nere erriapeaz bazkatzen,

Hekien lurak ere ontzen;



Goiz oro ikhusten diat
Famillatik bat edo bat,
Gaiztagin hortaz hartua
Gero asinatua:
Hoiien hauerwide otsoek
Ondarrak garbitzen
Barbaro hoiien biktima zorizko
Nekke traballutan, bethi hoiendako,
Azkenean hoiien eskuez hiltzea,
Hona gu bien zortea!
Hala dun dio zakurrak:
Baina urusagoak othe
Daduzkan heronek gure
Ondikoaren autorrak?
Hail, arreba, dugun uste
Hobe dela, zer nahi den
Izatea gaitzkiaren
Egille baino jasaille.



Sⁿ FRANTSES-XABIER

Jean Elissalde
S. Frantses-Xabier



Grand Séminaire

BAYONNE

H. ALBAGNAC — VILLENEUVE-SUR-LOT

Year Elissalde

feuilleton pour 'Esknaldima'
Livre 17 livres

a recevoir pour tirage

Voire avec m-a D. de Esknaldima

J^m Frantses Xavier ...

b. d. g.

1
Sainduaren torbaso eta burhasoak. - Sortzea. - Haurtasuna. - Gero.

Bizpahirur ehun arima badire orai Jaxu Pachenabarreko herrichta argi eta pollitean. Hemen aipatzerat goatzin demboretan etzen hurbiltzeko ere hoinbertze: erditsuak bezala nasti. Hautan, etcheko-jaun handi batzu: ezagutuena Las cortarrak. Asphaltchagoe-tarik ziren Frantses. Tabieren arbaso Etcheberriatarrak. Hamalaugarren mendearen erditsutan Jaxuko Etcheberriatarratarik bat, premua, ezkondu zen Lohuskuneko nechkatcha batekin. Ezkontza huntarik sortu haurretarik bat jaun zen Donibane-Garazirat eta han kokatu. Tonaiia gehienari Etcheberriatarraren deithura utzirik, bertze bat hartu zuen, hauritz Chuberotarrak oraino egungo egunean egiten duten bezala: Jaxu. Horra zertako ez den geroztikako paperetan Pedro Jaxu baizik ikusten. Chuberotarrak etchearen izena hartzen dute haatik maizago. Kargu handi zerbeit Donibanen ardietsirik, sos frango egin zuen Pedrok, edertsi ezkondu zen eta bere haureri eskola handiak har-arazi ziozkaten. Bertzeak bertze, haur hautarik batek bide handia egin zuen eta gazterik ezkondu zen Guillerma Othando, Truñako korteko kargudun baten alabarekin: Tornalt zuen berak izena. Tornalt eta Guillermairen sei haurretarik zaharrena Juan deithu zuten bathaio-harrian. Eran gabe doa gain-gaurretik eskolatu zela. Juan de Jaxu erresumako lehen karguetarat heldu zen beraz laster. Etche partearan gainerat hor irabazi zituenekin, diruz eta ontasunaz okhutu zen. Ez da beraz haurtzeko hein ederreko etcheko-alaba frango ethorri bazitzaien

aintzinerat: Maria de Ezpilcueta, Taberi deithu gaztelu famatu
batetako alaba gehiena hautatu zuen gurzien artean.

Etzazaken hantu kobarik egin: Maria de Ezpilcueta, korteko ohore eta
posteten erdian lilluratzeko orde, betri gorphutzaz baino gehiago
orhoitu da armaraz, munduarz baino gehiago zeruarz. Orduko paper
gurziak ez dire mintzo hango eta hemengo eliza eta komentueri egiten
ziorkaten emaitza choragarriez bairzik. Parakien Jainkoak ez dituela
aberastaturak nola-nahi erabiltzeko ematen, bainan ba, betri eta betri,
ongiaren egiteko ...

Juan de Jassu, Garaztarra, eta Maria de Ezpilcueta, Baztandarra, horra Fran-
tzes. Tabieren aitamak. Mola bortz ehun eta seiean, aphirilaren zazpian
ethorri zen mundurat mundua hala inharrosi behar zuen muthiko tipia:
aste saindua zen. Haurrak azkarra iduri zuen, bainan errana da egun
berean bathaiatu zutela halere. Ez dute luzatzen, ez luzatu behar, burhaso
girichtinok haurren bathaiatzea!

Badira diotenak etzutela Frantses. Tabier Taberiko gazteluan harzi, Jassu
edo Estkual. Herriko bertze herrichta zenbeitetarat ereman zutela. Ez du
iduri egia dela: Taberin sortu zen eta harzi, Juan de Ezpilcuetak guti
gora behera diotaren arabera: «Frantses. Tabieren ahaidegoan naiz
guti edo aski. Haur-haurretik ezagutzen dut, amagoetan zelarik eza-
gutua. Hainitzetan ikusi dut, hainitzetan mintzatu eskola handietako
bidea hartu duen eguna arte. Zembatetan ez naiz Taberiko gazteluan
egon neroni!»

«Ez ditake gure Frantses tipia baino haur erne eta maitagarriagorik, dio bere papere-
tan Navarro gure Sainduaren anaia gehienak: oro harritzen eta choratzen gaitu!»

Ez dakigu bertze deus handirik Frantses. Tabieren lehen-lehen
urtheez. Sei urtheak Taberiko gazteluan egin zituen. Orduan hasi zitzaizkoten oro
gairiki posten gazteluko senhar. emazte oneri. Emeki. emeki atzeak Nafarrako
erresuma ederrari bere eskupide gehienak ebatsirik, Juan de Jassu ere erori zen.
Ohoinek larrute zuten kasik. Etzen gehiago holako zorizaitzari ihardokitzeko
adinean: hil zen. Etzitzen haatik heriotze horrek ~~oro~~ gaichtakeriak geldiarazi
behar, eta handik laster Frantses. Tabierrek bere begiz ikusi behar zituen langile
batzu gazteluari eta gaztelua zaintzen zuten murre zahareri pikotchekin joko
lumerat botatzeko. Deusek ez du heriak bezala itsutzen gizona! Taberiko gaztelu

3 / ederra etzen gehiago nun-nahiko etche arunt bat baizik, eremu
larrutu batean etche oraino larrutuago bat baizik!

Bertze oron tzarrik ikusi behar zuten oraino gazteluan. Na-
fartarrak berritz, Erregeren kontra altchaturik, gora-behera frangoren
ondotik azkenekotz zapratu eta chehaturak izan ziren Moayan,
bainan etzuten San Frantsesen anaietanik bigek bereziki aise amor
eman oraino. Udolak hala maratzzen zioten.

Beharra eragile handi baita, bakea aruas ethorri eta guduak ahantzi
zirelarik, Maria de Jospilcuetak hitz bat igorri zion Erregeri lehengo
drekhoetan sartu nahiz, eta Jospilcuetan nola Laberin soldado Espa-
gnolek egin ziozkaten kaltean ordainez diru zerbeit galdetzeko. Hitz
ederrak eman ziozkaten berehala, eta gero deusk ez! Tondere gaichoak
sos bat ukhan baino lehen hitz ^{behar} zuten... orori oro barkhaturik!

Jada zerbeiti lotzeko adinean zen Frantses. Labier. Jonaiek
aspaldi egin. ahal guziak eginak ziozkaten tropetan sar-arazteko. Debel-
detan. Liburuetarat ekharriago zen. Bazakien aita kargu handiene-
tarat liburuak altchatu zitela eta iduritzen zitzaion hari ere bide
eginaraziko zitela.

Beraz, ordu arte etchean edo Truñako eskola batean hortzez eta haginez
arizantik, mila bortz ehun eta hogita bortzean hartu zuten Frantziako
bidea. Itxeretzki urte zituen. Sos guti moltsan, bainan amets handiak
gogean, lothu zen bide horri bere ama maiteari bi muzu gozo emanik...

Liburu egile batzu azkarki guduak arizan dire Frantsesa zen ala Espagnola
san Frantses. Labier. Frantsesa zela finkatu dutenek beren arrazoinak badi-
tuzte; Nafarra Frantsesen menexen zela, Frantses. Labier sortu zenean. Bertzeak
aldiz egundainotik Sanguesa, Frantses. Labieren sort. herria, mendiz bertzal-
dean izatu dela erraten daukute. Hori ere hala da. Guretzat san Frantses
etzzen ez Frantsesa ez, Espagnola; Eskualduna zen, kantikak dion bezala:

Hitarz Garaztarra, amaz, Baztandarra,

Eskualdun garbia zen ta Nafantarra...

Urrunago joan gabe, hitz berezi bat orai. Nor edo nor ohartu ditake hunat
arte behinera ez dugula erran Frantses. Labierek othortza bertze haurrek baino
maiteago zuela jada, elizan ibiltzaleago zela, edo holako bertze zerbeit. Egia.
Huna zertako? Nihun ez dugulakotz argi ttipiena kausitu hortaz. Irakurta
ditugun liburuetan bethi gauza berak ikusi ditugu: ama aruas eta aruas

4 / elizako jendea zela, apezak maite zituela, herriko elizari zer-nahi ematen ziola eta bere haur guzietan noiz-nahi othoitzean ari zela. Bainan Frantses-Nabierez sekulan nihun aipku berezi bat! Guzien buruan baditake bere adinako bertze haur guziaz bezalakoa zen: ez hobe ez gaichtoagoa. Jainkoaren orenak Parisen jo behar zion eta herritar batek behar zuen, itzulika frangoren ondotik, bere baitan sar-arazi eta arras zeruko urhatsetarat itzuli. Egiazki Jainkoaren chedeak harrigarriak dire!

Frantses-Nabier bere baitan sar-arazi behar zuen herritarra, Inazio Eoi-lakoa bera, etzen bethi hoberen-hoberenetarik izana. Huna zer aithortu zioten behin predikalkitiek bere herritarreri: « Ene anaia maiteak, uste nuen sekulako utzi zintuztedala, bainan kontzientziako arran-gura batzuek ekharri naute oraino zuen arterat. Espaldian boz batek saminkie erraten zautan gazte erko agertu nintzen herrian behar nuela agertu zentzatusa, urrikitan sartua. Jainko Jaunari othoitz egiten diot egun guziz, eta nigar aihenetan othoitz egiten, ahantz detzan ene gaztetaduneko urtheak. Bueri ere, herritar maite-maiteak, barkhamendu galdetzen dut eta othoizten zintuztet Jainkoari gomenda nezarauen. Eta zuek zuek zenbeit eni behatuz gaizki abiatu balinbadire, berehala sar ditela beren baitan eta beren bekhaturiz urrikiturik Jainkoaren ganat itzul»

Bai, egiazki Jainkoaren chedeak harrigarriak dire! Bainan nork daki ez diotegun guzien buruan ama girichtino handi baten othoitzeri zer sar Frantses-Nabier, egundaino Eskual-Herrian ukhan dugun saindu handienetarik bat? Homa maiteak, etzazue hori ahantz eta zuen haurrentzat egizue othoitz hainitz bethi!

5

2
Paris

Hona Frantses-Xabier Parisen. Laster eta hainitz ikasi nahi
 zuen: Pariseko ikastegi handienetarik batean sartu zen beraz. Santa Barbara
 zuen ikastegi horrek izena. Baina Parisen irristu handiak ditu gartearentzat.
 Jada Santa Barbararen berian irakasle eta ikasle frango baten galdurik. Eta
 arras galdurik! Gutik egin zuen ez baitzen galdu gure Eskualduna ere. Utz
 dezagun haatik hemen bera mintzatzerat: « Ene lagunetarik hainitz arras
 phestari emanak ziren jada: ikastegiko buruzagia bera ere ba. Noiz-nahi
 gauaz ikastegitik etheraturik etche txarretan zabiltzan eta behin
 baino gehiagotan neroni berentekin joanarazi ninduten. Baina
 eskerrak Jainkoari, orok gaitz itsusienak biltzen ari zituztela oharturik,
 lotsatu bainintzen! Hainbertzenarekin ikastegiko buruzagi galdu doha-
 kabea hil zen eta bertze bat ethorri arras gisakoa eta behar zen beza-
 lakoa. Haren kontseilu oneri esker arras ^{ene} baitan sartu nintzen
 eta, oraino behinere erori gabe, irristu hetarik urundu ... »

Baina ez othe zuen bertze zerbeitik ere Frantses-Xabier begiratu gehiago lerra-
 tyetik? Baietz iduritu zaitte hartaz mintzatu diren guzjeri. Zerk, bada? Gela
 berean lo egiten zuen ikasle lagun ^{baten} kontseilu eta etsenpluek ...

Santa Barbarako gelak arras handiak ziren eta bethi kasik bizpahirur
 ikasle baziren bakhotechan. Eskualdunaren lagunetarik batek Piarres
 Lefevre zuen izena: Frantsesa zen. Haur haurretik jakitate gose, eskola
 berezi batzu hartu zituen herriko irakasle on batekin. Bere eskola
 handien egiterat Pariserat joatea galdetu zituen orduan burkaberri eta,

beren semeaz fida baitziren, burhasoek lortetan utzi ~~guztira~~. Jodi-
neko gizon bat bezen gizon segura zen jada Piarres Lefevre. Tchila
bertzalde, langile errabiatura, bihotz onekoa, kartoa. Horra gure
herritarri Jainkoak gelan eman zion lagun ona.

Elgar lagunduz eta lotsaduretara elgar ederki sustatur, bi adichkide
berriak airez-aire egiten zituzten lan guztiak. Ez da beraz harritzeko
laur urtheren buruko batek eta bertzeak titulu handi batzu ardietsi
bazituzten. Handik laster Frantses. Labier bera irakasle bezala hautatu
zuten bertze eskola batetako. Etzitzen horrengatik bere gela eta adich-
kidea utzi. Pere baitan sortzen hasia zelako frogak!

Mila bertze ehun eta hogiita bederatzigarren urthea poliki gain behiti
abiatura zen jada. Egun batez bi adichkideeri lagun berri bat eman
zioten gelan hirugarren bezala. Ospaldi ikusiez ezagutzen zuten
batek eta bertzeak, hainitzetan Kavrikam buruz buru egirik. Berrogoi
urthetarat goala iduri zuen jada eta, oraino oharagarriago izateko,
eskuineko zangotik baruen mainguz aire zerbeit. Bere traste arsurat
eta higatuekin ikasle baten baino hainitz eskale baten planta gehiago
zuen. Horrengatik, zer aire ederra eta begitarte maitagarria! Inazio Lo-
lakoa zen.

Egun berriak bazituen bere chedeak: berrogoi urthetan kolako
gizonak ez du deusik airerat egiten. Jodinak lotsatu gabe hortzez
eta haginez bere eskola handien egiten ari zelarik, lagun eta
laguntzaileketa zabilan jada Jainkoaren alhorreko. Piarres Lefevre
laster bildu zuen. Etzuen aise bildu behar Frantses-Labier! Eskuarazko
liburu eder batean irakurtzen dugunaz, bertze batek aspaldi etsituko
omen zuen: Inazio etzuen etsitu, Frantses-Labieren elhe batzuetarik
noizpeit iduriturik, egun ez baren behar, bikar ez baren etzi, eskuratuko
zuela. Hortakotz, ezliki mintzatzeko zitzaion, ahal bezenbat ile alde: hala
nahi zuen herritarriaren ~~hainitz~~ mumberak. Bainan uste dugu
Inazioen elhe guztiak baino gehiago bertze zerbeitak idekarazi ziozkala
begiak eta hunkitu bihotza Frantses-Labieri. Huna zerk.

Santa Barbaran sortzean Inazio Loiolakoak ikastegiko buruzagiarri
erdi hitzemanen zion ikasle laguneri ez ziotela sobera gerla egiten
bere urhatsari jarraikarazteko. Bainan hitz hori nola atchik Jainko-
rentzat bihotza Inazio bezala su eta kharrez bethea delarik? Etzitzen

74 / ichil : etzen ichiltzen. « Non possumus non loqui » erraten zion
bihotzak, bertze orduz topostolueri bezala. Gaitzitu zitzaion buruz-
giari eta egun batez ororen aintzinean gaitzitu zuen. Eta nola gaitzi-
gatu oraino! Haur bati bezala soinak agerarazirik, azotekaldika
chehatu zuen! Etzuen hitzik erran Inazirik, etzuen hintik egin. Har-
ritu zen buruzagia bera; Inazio kamporat joanarazirik luzez bizak
mintzatu ziren elgarrekin, eta gero, berritz ororen aintzinerat itzulirik,
irakasleak barkhamendu galdetu zion ikasleari!

Hortan egiariki adiektidetzen hasi ziren bi Eskualdunak. Etzen
haatik oraino orori Frantses. Nabier : erroak barna dituen zuhaitza
ere ez dute lehen haizeek lurreratzen. Jada aiphatua dugun
eskuarazko liburu eder hortan irakurtzen dugun bezala « bihotz
suhar baten munduko lokharrien hausteko, lan behar da eta
dembora ». Ez da gutiago egia haatik handik goiti bere bihotza
hobeki idelkitzen ziola herritarrek herritarri. Bere amets
handi eta ederrak berak etzizkan gehiago ^{hala} gordetzen. Eta
amets horiei Inazirik bethi hitz berez ihardesten zioten : « Quid
prodest homini, si universum mundum lucretur, animæ vero sue
detrimentum patitur? » Ber ari da gizona mundu guzira bereturik
ere, arima galtzen badu? »

Gogor egin zuen oraino eta oraino Frantses. Nabierrek, ba; bainan,
errana den bezala, bethi jox harriari ere phuska khentzen zaien. Lau
urtheren buruan amor eman zuen, Jiarres Lefevre kampan zen
egun batez. Huna, bethi eskuarazko liburu berari harturik, egun
handi hortako chehetasunak :

— « Ene Frantses maitea, lehen erranak behar dauzkitzut beraz
« berritz ~~erran~~ erran? Gizona zer ari da mundua irabazirik ere
« arima galtzen badu? ... »

— « Jakintsun bilhakatur, jakintsunaren aiphamena karreatuz,
« ez othe niteke salba? »

— « Beharbada bai, beharbada ez. Zuk dakizuna da, Jainkoak
« nahi duela haren amores gatik mundua utzi dezazun! »

— « Mundua utzi? Eta idea hertsia batzuetan sar? »

— « Hertsia, Frantses?... Herimari hegala ematen dituztenak!

* Salbatzaileak hitzez eta obraz gomendatu dauzkunak! Salba-

«tzaileari jarraituz, arima apaltzetik urrun, arima edertzen
«du eta zeruraino altxatzen: zuzenean da zure izpiritua gaur
«horren ez ikusteko. Laber maitea, galdeitza bat eginen dautzut;
«zure izpirituari nago, zure bihotzari nago. ber da hobe? Frimaren
«zorion eternaletan maite denaz orai gabetzea, ala arimaren zori-
«gaitz eternaletan maite denaz orai gozatzea? ber diozu? Zer da
«zuhurrago?»

Frantsesek ez du ihardesten: haren begitartea khambiatua da,
haren eskua ikharan dago Inazioaren eskuan, guduak ari
da haren bihotza.

«Bure ichiltasunak ez du guti erran nahi: hortan gauden egun.

«Segur naiz bihar zuhaurek erranen dautzula: ber ari da gizona
«mundua irabazirik ere, arima galtzen badu?»

«Ez dut biharrerat utzi nahi, garhaitua naiz, aihortzen dut. Bainan
«ez ditzazket guziak utzi ... ez ditzazket!»

«Gaur iduritzen zaitzu ez dezakerula, bainan zure naturalerako
«gizon bat ez da bide erditan baratzzen. Egia behin ezagutuz geroz,
«begirik ez du haren ikusteko baizik, mihiarik hartaz mintzatzeko
«baizik, bihotzik haren maitatzeko baizik, indarrik haren zerbitza-
«tzeko baizik»

..... Bat bertzearen besoetat erortzen dire bi Eskualdunak, bizak
bozkariozko nigarretan, Jainkoari eskerrak bikertzen dituztela,
batek irabazi handi bat egirik, bertzeak bere burua irabazterat
utzirik.....»

Inazio-Loiolakoak nola ezagutzen zituen gizonak! Ez, Frantses-Laber
stzen bide erditan gelditu behar. Berehala barurari eman zen,
berchala egun guzietz bere gorphutzaren bortizki azotatzzen hasi. Bain-
bertzetaraino nun Inazioek berak erran izan behar baitzion orotan
badela hein bat, indarriak dituenak ongi egiten duela ongiarentzat
atchikitzea. «Urrunegi joanen zen, Inazio hola mintzatu ez balitzais»,
dio bere liburuan aita Prou jesuista famatu batek.

Mila bortz ehun eta hogoit hamalaua urte handia izan dela Elizarentzat
ez da dudarik. Jorgorilaren hamabortzean, Hendredena ariaren phestan,
zazpi gizon baziren Montmartreko Kapera ttipi batean bilduak: Inazio-Loi-
lakoa eta Frantses-Laber bi Eskualdunak; Lainez, Salmeron eta Bobadilla

9 Espagnolak; Portuges bat, Simon Rodriguez; eta Piarres Lefevre
jada frangotan aiphatua dugun Frantsesa. Inazio berrogoita hirur
urthe zituen: hogorta zortzi bertze deietarik zaharrenak. Dira botu
egin zuten orok Kapera tipi hartan, bethi garbi eta errones gorri
egonen zirela.

Hona, bada, munduan egin diren lehen jesuistak, egungo egunean
oraino tyarrek begiko zikhina baino gehiago ikusi nahi ez dituzten
aphez on eta suhar batzuen aintzineko eta aitak.⁽¹⁾

Estual-Herrian ez ditugu jesuistak hainitz ezagutzen, Eskualdun
guti sartzen baita horien komentuetan. Baina aita Lhande Kal-
giztar aipatu eta gure adichkide Etxerriy Kiburutar bi anaietarik
juzatzeko, aise finka ditake Jainkoaren alhorrean langile hobe
guti dela.

Bainan aldeko solasetan galdu gabe itzul gaiten laster Frantses-La-
bieren ganat. Handik bi urtheren buruan joan zen Parisetik: zer egin zuen
ordu arte? Lehenik, bakantzak ethorri zireneko, erretrata ^{edo gogo-betze} luze bat, Inazio
gidari. Gero? Ez dakigu: nikun ez dugu deusik ikusi. Ez da dudarik
lanean arizan zela sekulan baino gehiago, lana othortza baita, eta
bere lagunekin arras Inazioaren eskuetan eman zela, orok bihotz bat
eta arima bat bartzik ez egiteko

(1) Erran dezagun haatik zenbat urthe geroago hartu behar zutela «Jesusten» izena, baita
Sainduaren baimenarekin.

3

Bidean — Italian — Lehen meza.

Parisen elgarretarat bilduak ziren aldi batez, Jesuista berriek — izen hori eman dezogukete naski jada makhurrik gabe, nahiz etziren oraino hala? — Euz Sainduetan hasi behar zituztela beren lanak egina zuten, bainan horat joateko traba zerbeit gerta zitakela erranik Inaziook, hitzartu zuten Benizako hirian elgarretaratuko zirela mila bortz ehun eta hogoiita hamazazpian. Etzen apherztua oraino ~~zen~~ Frantses. Labier, bideari lotu zelarik zerbeit lagun chahar eta hirur lagun berriekin. Inazio Espainiarat joana zen zerbeit dem. bora hartan eriturik, sendatzeko, bai eta etheko antolamendu batzuen egiteko. Nequ bethea zen. Dinez abiatu ziren, « makhila eskuan, othoitzeko liburua besapean, arrosorioak lephotik, chakutto bat bizkarrean liburuaz eta paperez bethea » dio eskuarazko liburua, urriak eta elhurrik lotsatu gabe. Urtharrileko heldu behar zuten Benizarat. Etzuten aise egin behar. Lehenik, Frantsesen eta Espagnolon ontean gerla hasirik, itzuli handi bat hartu behar izan zuten Alemanian gairdi. Gero Frantses. Labier betbetan eritu zen. Nigarra begian goiz batez bere bidetako laguneri erran zioten ez zezakela gehiago urhatsik egin.

ber gaitz othe zuen? Utz dezagun oraino eskuarazko liburua mintzatzerat: « Hoinkari eta jauztekari bezala aipatua zen Frantses Parise guzian. Laudorio bat baino gehiago entzuna zagon bere membro

11 / zalhoinez, bere urhatsaire ederraz, bere itchurantzia begikoaz, bere
gorphutz azkar eta berdenaz. Laudorio hek on hartu zituelakotz,
heien ondolik ibili zelakotz, azpiak ezarri zituen khorda meke batzuez
tinkaturik, eta hainbertzetaraino hanttu zitzaizkon nun ez baitzen
gehiago khordarik ageri».

Etzuen mirikurik nahi, bainan lagunek bat ekhar-arazi zuten halere.
Hau harritu zen eta lañoki aithortu khorda hek handik khentzekotz
eria hil behar lukeela. Frantses. Labierek Jainkoa zela mirikurik
hoberena errarik, lagun guziak belhaunikatu ziren eta othoitzean
hasi. So chortarik etzuten egin gau guzian, bainan ere biharomunean
khordak eroriak ziren, hertuak hantura lotsagarriak ... eta gure eria
egundaino bezen azkar eta zalhu!

Telemanian sartu ziren. Bainan gau batez jostetak ikusi zituzten
hirichka batean hango buruzagi batekin. Hau, ostatu bethean,
sekulako jendetzearen aintzinean, katolikoan kontra zer-nahi
erranka hasirik, berehala bidetari guziak buru egin zitoten, eta
erhautsi. Ez dakigu Bobadilla gazteak lorietan ^{elzior} panpaldi bat ere
emanen. Gaitzitu zitzaion telemanari: oihuka zalapartaka
hasi zen lehenik, mehatehuka gero. Ez othe zituen hil-araziko?
Bainan bere chakuttoak harturik, lekhuak hustu zituzten lasterko
gizagaichoek ... bertze nunbeit jateko menturan. Egia erran, jan
gabe gehiago egoteak etzitzen hainitz lotsatzen!

Mila bortz ehun eta hogoit hamazazpigarren urtheak bidean
atcheman zituen oraino. Urtharrilaren zortzian heldu ziren ba-
kharririk Penizarat.

Munduan Peniza baino hiri ederrago guti da. Begia ez ditake
ade hango etche eder, argi maite eta itsaso paregabeaz. Bainan
beldura dugu gure bidetariak etzirela haueri guziori hainitz
ohartu. Bertze minik bazuten sabelean: Inazio. Loiolakoa nahi
zuten lehenbailehen ikusi. Ber bozkarioa agertu zitzaiontean eta
join gogotik besarkatu zuten orok! Tolabainan hura gabe errebela.
tako zirela zitzaionten.....

X Erran ditake Frantses. Labierek hiri hortan egin zituela
misionestzoko lehen apendizkoak. Bitoren semea, lehenik athez-athe
ibili behar izan zen eske, hemen arza buruchka bat, han bi lur-sagar,

12^o / wrruntchago oji mokhor mutjinduk galdetuz, bidean haur tzarren
harrukaldiek, atheetan etheko andere urquiltutsuen trufk lotsatu gabe.
Nainan Jainkoaren izenean Inazioek hala manatzan zuenaz geroz, zer
egin?

Gero, Inazioek eritegietak bidea har-arazi zion. U, zer okhartzadura
hastean zauri eta gaitz ikharagarri batzuen aintzinean! Etxuen bere
burua aise garhaitu Frantses-Labierek. Nainan bazakien gaitz handieri
erremedio handiak ematen zaizkotela, eta huna zer egin zuen goiz batez.
Chokho batean karrasiaka ari zen lepradun bati oharturik, — nihork
arhatu nahi etzuen lepradun bati, — hurbildu zitzaion. Usteltzen
habia zen jada eria eta ez ditake erran zer usaino hedatzen zuen.
Gaitika hasteko heinean izan zen behin Eskualduna bera, bainan,
Jainkoari bihotza altxaturik, besoetan hartu zuen eta besarkatu,^{eria}
eta orduan, bere okhartzaduraren bethikotz garhaitzeko, zauri lotsa-
garrienean ezpainak pausatutik, hango zorne guzia kurrupatu! Eho-
keria miresgarria eta jada saildu handi den gizon batek bakharrik
egin dezakera! Nos stulti propter Christum!

Primaderako oro ederrin beha zagon Inazio-Loiolako bere
lagun maiteen bita sailduaren ganat igortzeko, bertzeak bertze Sur Jain-
duetarat joiteko baimena galdetuz. Erroan gabe doa ~~oro~~ oinez joan
zela Erromarat Frantses-Labier bere lagunekin. Jarizuma zen: bidetako
nekhe guziak ez zitzaizkoten aski iduritu behinere baruraren hausteko.
Eta bizkitartean irakurtzaileek aise sinhesten ahal dute orduko barurek
etziotela oraitoeri zorrik! Bidetako nahigabe batzu bertzalde! Bita Bartoli ai-
phaturak oro terro-terro erraten dute liburu batean. Ez ditugu oro erranen, zuk:
hauk bakharrik: noiz-nahi kamposan etzan behar izan zutela, zerua estalki
eta lurra mihise: nola Rabenako eritegian berean ororentzat etzuten ohe bat
buzirik atxeman, dena ere zikhina, eta nola hartu zuten ... bi nekhatuenek:
nola konkonako hirian, onthuts, larruraino bustia, eta guziq goseak hamikatua,
Frantses-Labierek eske ibili behar izan zuen ... ez hiltzekotz! Nainan Erromarat
heldu ziren halere oro.

Paulo III zen bita saildu orduan. Horras gustatu zen Frantses-Labier eta bere
lagunez. Kondatua da Erromako teologo handienekin zudukarazi zituela
frango aldiq nihork sekulan garhaitu gabe, berak ere behin baino gehiagotan
bere etcherat deitku zituela eta bere mahainean jar-arazi hobeki ezagutzeko.

13 / Hainbertzetaraino nun zenbeit demboraren buruan, oro ongi pisaturik,
lorietan eman baitziorzkaten nahi zituzten baimen guzjak. Salbu, erran
zioten ongi eginen zutela lur sailduetatat ez oraino menturatzea, irristu
handiak bazituela bideak. Burkoen gerla hasterat zoon. Baiman Kontseilu
horrek eman zezoketen bihotzminaren berehala ezteztzeko, aphezgoaren
nahi zuten bezen laster eta nahi zuten aphezpikuaren eskuetarik hartzeko
dretchoa gogo handiz utzi zioten. Chori batzu baino ^{arinarago} itzuli ziren beraz Deni-
zarat eta etzioten seguru nahi baino lasterrago salatu Inazioari berri
handia gure bidetarik.

Ikusiak ikusirik, orai nor-nahik aise asma dezake Frantses-Labier eta bertze
aphezgeiek zer bildutasun, othoitz eta penitentzietan igurikatu zuten Ekhai-
naren hogorta laua, aphezteko egun choragarria. San Inazioaren bizian
irakur ditazke chehetasun huntzarri batzu: « Aldarerat igan baino
lehen, berrogoi egunetako barur bat egin zuten. Bizentzeko komentu
erori batean iragan zituzten berrogoi egun hek. Ezkeren gerlak etzion
komentu hari ez aite bat, ez leho bat utzi. Iguzkiak, euriak, hotzak,
beroak, zeruko haize guzkiak josten zuten. Hantche jarri ziren saildu
maitesk, ahal zuten bezala: ohetzat lastoa, alkitzat harria: edaritzat
ura, ahurrean dena ere: janharitzat ogi hutsa. Batere jan gabe ere egon
bide ziren zenbeit egun. Gorphutzari khendua arimari emana zen »....

Baiman egiak behar du bere bidea: Frantses-Labier batere ez omen
zen komentu hortan. Inazioaren bizia ematen daukum eskuarazko liburua
agertuz geroztik, paper chahar frango atchaman dute bilhatzarleek eta
heien esker orai segurki badakigu Montselizen, Jaduako inguruetan,
iragan zituela Nafartarrak berrogoi egun horiek, etchola galdu batean,
munduko harribotzetarik urrun. Jentsatzeko da Bizentzeko komentuaren
iduritsukoa zela gutienetik Montselizeko etchola eta sartzeak. Libro
zituztela hartan ere euri, haize eta gaineratekoek. Ospaldi zuen etzela
gehiago aisiaren ondotik ibilki. Frantses-Labier, alabainan....

Dena dela Ekhaiaren hogorta lauean aphezte zen bertzeak bezala, libeko
aphezpikuaren eskuetarik. Eskualdunek maite dugun saildu handi
baten phesta zen, Jondoni Joan Batichtarena.

Siburu egile bat bada lehen meza handik ilhabete baten buruan bozkit
etzuela eman erraten duena: etzauku iduritzen. Hobeki sinhesten dugu
meza hori ematean pur pur pur nigarrez arizan zela erraten duelarik....

4

Italiatik Portugalerat. — Egiari bere bidea.

Horia beraz, Frantses. Labier apezteua : haren lagunak ere ba. Bikaramunean berean Inaziok berriuz bil-arazi zituen oro Bizantzeko komentuko hartarat, zer egin behar zuten elgarrekin aiphatzeko eta ikusteko. Turkoei eta Benezotaren artean gerla hasia zen : ez zitazken beraz, apez berriak Lux Sainduetarat nikundik mentura. Italian berean hasiko zirela lanean hitzartu zuten, « Jesusen La-gundia » lege berri batzuetan finkaturik. Inaziori eman zioten kargua Bita Sainduari lege berri horien irakusteko eta, ahal bazuen, onhartarazteko. Inaziok behar ziren urhatsak abiatu zituen berehala. Eraba ederrik atchegan behar zuen bidean ! Painan, gurien buruan, gizonen deusik ez dezakete Jainkoak nahi duenaren kontra, eta trabak garhau ziren.

Polonian lehenik eta gero Erroman ere arhatzen, predikatzen eta katiclima egiten zenbeit demboraz arizantik, Frantses. Labier Italiatik urrundua ^{ordukotz} zen. Juan III, Portugaleko errege givichtinoak misionest batzu galdeturik itsasoz bertzaldeko bere eremuetako, Frantses. Labier eta Simon Rodriguez igorriak ziozkan, Bita Sainduaren baimenarekin, Inaziok. Bita Sainduarekin luzeke mintzaturik eta Bita Sainduak urrungo lurretako bere mandatarigoo emanik, mila bortz ehun eta berrogoi-garren urthean eta Martchoaren hamabesean Safartar Sainduari sinez lothu zen Portugaleko bideari. Ezen bakharrik : Portugaleko embachadorea eta huren mutuilak berekin zituen.

15

Huna, jada bospaseietan bederen aipatu dugun eskuarazko liburu
chakar hartan nola kondatzen dauzkuten bidako berri batzu, orai:
« Erroma utzi zuen, sotana larritu bat soinean, kapa chakar bat
bizkarrean, othoitzeko liburu besapean. Leihorrez egin zuen Lisbo-
narako bidea, Portugaleko embachadoreoren lekhaio.
Laberiko jawregian jakinak ziren Indietako urhatse ukhan zuela
Frantsesek, Portugaleko erregeak Lisbonan igurikatzen zuela eta
Lisbonarat Iruñan gaindi juan behar zela. Guziek uste zuten sor
lekhuaren eta ama chaharraren ikusterak baztertuko zela. Ithai-
dego guzia, esperantza horrek bildu zuen Laberiko jawregirat.
Emak egun guziaz mutkil bat igortzen zuen Iruñarat semearen
berriketa, eta mutkila hutsik ethortzean, amak hatsbeherapen batekin
erraiten zuen: « Ithar, beharbada, jakinen dugu zerbeit: gauden
begira ». Eta begira zagon, eta demora bazpoan, eta semeak etzen
ageri. Jain gaineko gambararat igainik, Iruña aldeko bideari
so so egiten zen, noiz ikusiko zuen semea. « Hamazazpi urthe badu
ez dudala ikusi, zion bere semei: halere, ethor baladi, seguri ezagut
rezake ». — « Bai, ama, bai, ihardesten zioten semeak, ezagut zinezake
oraino ». — « Pedro Ortizek igorri daut ene semea bethi edez dagola,
ontsa meke dela haatik, zeren ene haur maite hura saindu bat
baita eta bere gorphutza azoteaz jaiten omen baitu! »
Iziken orhoitzapen horrek bihotza hausten zion: begiak behar
zituen orduan nigarrez busti: gero haatik Jainkoari altchatuko
zion bihotza eta erranen zuen: « Egia da Jainkoarena dela,
guzia Jainkoarena! Ez da geliago enea! »
Noizpeit hurbildu zen Portugaleko embachadorea eta Nafarroan
sartzean Frantsesi erran zion: « Aita Frantses, ez gare Iruñatik
urrun, han egonen naiz zure begira ». — « Ene begira, Jauna? » —
« Bai, aita Frantses: penitsu dut ezik Laberirat nahiko duzula juan-
jin bat egin? » — « Ez, jauna, ez naute Laberin ikusiko ». — « Nola ez? Ja-
kizazu, Aita maitea, Europa beharbada sekulakotz urten duzula! »
— « Baditeke sekulakotz urten dudana » — « Bada, hoinbertze urthe
badu ez ditutzula etchekoak ikusi: zure ama ona chahartua
da gaichoa ». — « Horiek guziak hala dire, jauna. Bainan ez
nau Jainkoak Laberirat deitzen, Indietarat deitzen nau ». — « Ene

16 / Ita, miresten dut zure bertutea: erranen dautzut haatik zure amak
igurikatzen zaituela eta sobera atsegabe eman zinezokela ikusterat
ez juanez. Ene ita maitea, zure amaren gatik, zoazi othoi Xabe-
rirat! Ama chaharrari othoi egiozu atsegin hori!» - «Itsegin
horri, jauna, adiorik erdiragarriena larraitioke. Ene ama maitearen-
tzat, ene ahaide guziz maiteentzat eta enetzat, hobe da ez dezagun elgar
ikus zeruan baizik. Beruan, zeruan, gure biltzarrea izanen da
adiorik gabekoa! Beruan deusek ez du histuko, deusek khirestuko
gure zorriona»..... Embachadorea, bere ustez, bertze zerbaiten erra-
terat zitzaikon: oharitu zen Frantses eta erran zion: «Naiizen
guzia, ditudan guziak, Jainkoari eman diotzat: ez ditzazket
gibelerat har; ez dut gibelerat hartzeko ez deetchorik ez eskirik».
Orduan ichildu zen embachadorea eta etziren Truñan gelditu
bixigailuen hartzeko dembora baizik.....»

Itama othe ditake gisa guziz ichtorio hori baino huntigarriagorik
eta politiago erranik? Nekhez. Bainan egiari bere bidea: ez
dakigu Eskualdun kondariak nun irakurtu zituen cheketasun
horiek guziak ala berak amets egin othe zituen. Dena dela, ez dire
egiak: hameka urte bazuen jada Frantses. Xabieren ama maitea
hila zela, alde batetik, ... eta, bertzetik, bidetariak etziren Truñan
gaindi iragan! Truña eta sor-lekhua ezkerago utzirik, Loroilarat
jo zuten chuchen-chuchena.....

Hiltzeko etziren orduan oraino errechetasunak. Urai airetan dabiltzan
tresna horietarik batean sartzea aski da oren pare batez Erromatik
Eisbonarat joateko: Frantses-Xabieri bi ilhabete handi hartu
zitzaion bideak. Suze iduritu othe zitzaizkon? Ez dakigu. Dakiguna
da laster adichkiotetu zela ororekin eta ongi fango egin zitela.
Eta gero holako bide luzeak beki baditu bere ustegabeak. Etzizaiotena
egin batez embachadorearen muthel bat urerat erori? Gutik egin
zuen ez bazen gizagaizpaito. Komentuan sartzeko chede zerbait
ukhana omen zuen lehentehago. Bainan huna nola kondatzen
duen gertakaria Frantses-Xabierek berak: «Urak zeramalarik,
segurki nahagoko omen zuen, Jainkoak deitua zuenean, Komentuan
sartu izan balitz! Sei horrerat orduko mintzatu nuen eta hau erran
zautan: galdua nintzela oharitu orduko, urriki samun batek bihotz

17 guzja hartu zautan dembora zenean ez maizago eta hobeki azken
orenaz orhoiturik! Zer oren latzgarria! Ez da orduan ^{aise} salbatzen!»

Hortean errateko, embachadorearen muthilak nun irakurtua
othe zuen san Agustin, hola mintzatzeke? Ezen iduripona dugu san Agus-
tinek erranak direla hitz hauk: penitentia quae ab infirmo petitur
infirmum est: penitentia quae a moriente tantum petitur, timeo ne et ipsa
moriatur Lege bahaurrean jada deus etyuen balio presondegian egin
testamentak!

Loiolan Frantses-Xabierek ikusi zituen Inazioaren anaia eta jendekia.
Begitarte egin zioten guziak eta lorietan berentkin atchikiko zuten zenbeit
egun. Baina etyuen dembora galtzekorik: Lisbonan beha zagon Juan III.
Beha ere, jada aspaldi itsasoz heldua, aita Rodriguez. Bideari berritzy
lothu zen beraz lehenbailehen. Ekhairean heldu zen Lisboanarat

Undoko egun batez Frantses-Xabier eta Rodriguez ikusi eta mintzatu
nahi izan zituen erregeak: harrutua eta choratua utzi zuten bi jesuistek. Hain-
bertzetaraino nun norbeiti handik laster erran boitzyon: «Zer-nahi eta
zer-nahi gostako balitzyout ere, ahal balitzy, «Jesuden Lagundiako» aita
guziak ekhar-araz netzazke hunat!» Etzyitaken.

Frantses-Xabierek bederatzi ilhabete iragan zituen Lisbonan,
Indietarat zean untzy baten beha. Dembora hortan etzyituen eskuak
gurutzatu. Norik erran ibili zituen lanak? «Hiri guzja azpikoz gora itzuli
zyuen bere predikuen eta bertuteen indarrak» dauku erran San Inazioaren
eta San Frantsesaren Bizia derizan liburuetan. Etzyon bertzerik jakinarazi
Frantses-Xabierek berak Inazio-Loiolakoari: «Kortea hala khambiatua
da nun ez baina gehiago Kortea, baina ba komentu bat!» Jaun eta andera
handienak berak zortzytik bederen kofesatzen eta Mahari Sainduan zabilzan.

Ez da beraz harrutzeke erregeak bihotzmin handirekin ikusi bazuen
ondoko Aphiirilaren zazpian Frantses-Xabier untzyan sartzen Indietarat
joateko. Bere amets maite eta gochoenaren bethetzerat zean Sofartarra!

5

Untzian. — Mozambikan. — Goako hirian.

Dembora hartan untzi batean urrun joateko sartzen zenak lanik errechena egina zuen. Nork erran, urthe bat iraganik eman baitzuen itsasoan, zer ikusi zuen Kafartar sainduak? Itsasoko min lotsagarriak bi ilhabetaz lehertua atchiki zuen lehenik, gero beroek itxo zuten. Horren gainetik etzuen oherik nahi eta ogi hutsean bizirik zen. Eta halere sekulan etzuen bere buruaz kechu: bertzeen minek egiten zioten min. Euen arhatzen, predikatzen eta kofesatzen iragan zuen bidea. Untzia mukhuru bethea zen eta erran ditake iragailuetan bazela guzietarik. Givichtino on guti, haatik. Bat bertzearen ondotik oro bildu zituen, bihurtuenak berak Jainkoaren ganat itzul-arazi. Errana da untzi hartan demboraren buruan oraino, lehengo Kantu okhaztagarrien orde, Frantses. Xabierak egin eta irakutsi kantika ederrak noiz-nahi adi zitazkeela! Ber saindutasunaren indarra! Eta egiazki ez du saindu batek baizik egiten harek egun batez egin zuena. Sukhar ikharagarri batek lurrari itzaltua jagokan. Mariñel bat eri handi bazela aditurik, herrestan joan zen haren ondorat, elizako guziak eman giorkan, kiltzen lagundu eta orduan bera, hats baki, panpalakoan lurrerat erori! Bai.

27
26
25
24
23
22
21
20
19
18
17
16
15
14
13
12
11
10
9
8
7
6
5
4
3
2
1
0

19) / nan dohakabe bat debruaren artaparretarik atheraturikako loriak berak berehala sendatu omen zuen! Sendatu? Baditake, bainan hobeki uste dugun indar berriak eman ziozkala, gaitzaren gatik, berritz erhoteria saunduenak egiteko! Hein hortaratua zen jada gure herritarra!... Badakigu jada etzola deusetan eta sekulan bere buruari amor ematen. Berak salatzen dauku, batere bilhatu gabe haatik, bidetik Inazio-Liolakoari igorri guthun luze batean: «Bita matea, othoi barkha zadozu ez badautzut egungo huntan berri gehiago igortzen: eri naiz, zarpijarren aldikotz odol zorta bat khendu dautek egun berean. Benedikatua izan daduela Jainkoa halere!»

Haize gaichtoek Mozambika deithu Afrika beheko eskualde batean untzia geltzarazirik, harritzeko lanak ibili zituen han ere, helde gaichto bat jauzirik, osasuna sekulakotz galtzeko heinercaino Kadik: «Orotan eriena Frantses. Xabier da, bainan korrengatik ez degoke geldirik: bere burua ahantzirik, goizetik arratserat bertze erien ondolik dabila» dio hango miriku baten guthunak. Ez da beraz harritzeko Mozambikako jaun gobernadoreak arnas maitatu bazuen eta egundaino nihori baino begitarte gehiago egin bazion.....

Haize onak hasi ziren artenean eta Frantses. Xabier beritz sartu zen untzian, maiatzaren seiaren Joa deithu hirirat heltzeko. Harat buruz Portugaletik abiatua zela bazuen urtheaz goiti, hamahirur ilhabetek.

Hiri eder bat zen Joa. Harrika ederrak bazituen: eliza-naubi bat choragarria: komentu zenbeit. Misioest berriak, nahi izan balu, aise hamar egoitza atchemanen zituen batzu bertzeak baino eder eta gochoagoak: eskaini ere ziozkaten zenbeit, haren famak jada harat heldusk baitziren nolazpeit. Jainan untzitik eritegirat joan zen chuchen-chuchena eta han kokatu. Alabainan nihor etzen eriak baino matego, nihorekin etzen heiekin baino lakhetago

Trakurtzailak maitoak, nahi duzue zerbeit aithor dezazuegun orai? Datere ez dakigu hemendik goiti nola jarraiki behar gitzaior Nafartarraren obra miragarriari. Hainbertze eta hainbertze urhats ibili du han gaindi eta nun. nahi! Hainbertze eta hainbertze lan egin! Eskualde frango kala inharrosi! Oro errateko sobera bada eta zerbeit bakharririk erratea lan zautku. Itzian san Frantses. Xabier handiak berak argituko,

gidatuko eta lagunduko gaitu. Nola-nahi, Eskualdunek barkha dezagutela gure esku eskasa eta beha dezotela baxharrik gure chede onari.....

Errana dugu Goa hiri eder bat zela. Hiri eder eta handi bat. Bainan zer hiri galdua hainbertze eliza, komentu eta apez onen gatik! Merkatu batzu gaitzak baziren egun guziz. Eta zer saltzen zela uste dugu merkatu hetan? Neskatcha gazteak. Hogoita hamar sosterarik hirur liberetaraino, nahikoa bazen, churi, beltz, hori eta kolore guzietako tarik. Hise asma ditake beraz zer bizia zeramaten egiteko zerbeitez harat zoazin Portuges eta gaineratekoek. Bainan handik zenbeit demboraren buruan etzen gehiago kolako merkaturik eta bertze manerarik ikusten zen Goako karriketari. Nori esker? Frantzes-Xabier sailduari esker. Erran gabe dra! Honen prediku sarkor eta katechima paregabeki eginek jende guzira sar-arazi zuten bere baitan. Handik goiti, beraren ahotik ikasten dugun bezala « hainbertze jende kofesatzerat heldu zen nun, hamar tokitan batean kausitzen ahal izan banintz, orotan izanen bainuen lana burutik goiti! ».....

Nunbeitik, zerbeit dembora atchematen zuen oraino erientzat, preso zirenentzat, behardunentzat eta guzien gainetik lepradun dohakabeentzat athez-athe eske ibiltzeko! Horientzat zerbeit egin zezaken ber, etzioten ez nekheari, ez burutik beheti ukhan zezakten trufa zozperi, ez bertze deuseri behatzen.....

Horren gainerat, deusek etzuen lotsatzen. Etzen-eta lotsa etche galdu batzuetan noiztenka sartzeko ere eta han hango dohakabeen bi begien artean egia zorrotzeneren errateko! Zenbat etzuen bekhatutik hise onerat ekharri hola! Ez, deusek etzuen lotsatzen ongiaren egiteko. Handiekin handitzeko, beharrean nor-nahi bezen on zen, eta nikork baino hobeki bazakien tipiekin tipitzen, ororekin ororena egiten,..... Jainkoaz mintzatzeko orena joaiterat utzi gabe sekulan.

Badirela gizon batzu segur beren putzuan uzteko hobeak, ez da dudatzeko. Badirela toki berezi batzu, apezek berek, nun eta ez diran jada San Frantzes Xabier edo Jorsete erreter bat bezala arras sailduak eta saildutzat ezagutuak, ihes egin behar diotenak, egia hori ere. Bainan jainkoak begi gaichtoz ikus othe bezake apezek eta ahala duten girichtino batzuek kampoan zer batzuetan ere erki bat bederen sartzea noiztenka,

21 / asko bilkuretan kausitzea, beren handi iduriar, jende gaichoa
beren ganik urruntzeko orde? Ez du iduri Gaspard Parzée ceta Jesus
tari bederen hainitz urrikitu zaiola behinere hola jokaturik, ezen
beha zer erraten daukun: «Nola ari naizen lanean? Huna bi
hitzez. Hainitz ofizio ikasi eta erabili nuen munduan: orai heiekin
berekin lehiatzen naiz ahal dutan ongi guziaren egiterat, lehen ^{egin}
gaizkiaren orde! Deus etzaut sobera arima baten biltzeko. Ongi egiten
otke dut? Hala gaizki? Ez dakit: Jainkoak erranen daut; ikusten nau.
Truz ari direnekin, irri egiten dut; Kantuz ari direnekin, Kantu;
erhoekin erhotzen naiz; nigarrez ari direnekin, nigarrez hasten.
Banaki dantzari ariz norbeiti zerbeit on egin nezekela, zer dantzak
ibil netzazken! Orai arte molde horrekin ez naiz gaizki heldu. Guzien
buruan, sobera aintzen banintz hola, hanbat gaichto! Zerbeitak
atsegin handi bat ematen daut haatik: Frantses-Xabier ere
holatsu arizan dela lanean ... eta nek ez dut merezi haren oinetako
lokharruen hunkitzea ere!»

Bortz ilhabete iraganak bazituen Frantses-Xabierek Goan, ^{eta} ~~Goan~~
Goa etzen gehiago Goa. Lana galdetzen zuen, eta lan gaichtoa, Na-
fanta suharrak. Apherpiku eta gobernadorearekin mintzaturik,
Goa bere apherzen gain utziarik, ez bat eta ez bi goiz baten berritz
untzian sartu zen, urrunagoke pagano batzuek jarraituko. Haren
zoriona! Etzion gorde bere buruzagi eta adichkide Inazio-Loiolakari:
«Jeta maitea, ene loria bazinaki! Itsasoan bidetze berri luze
baterko nekheak jasane ditut beraz, ere bekhaturik lehertua nau-
katelarik bertzerenak oraino gainerat hartuko, pagansen erdian
biziko, iguzki gorrienaren suan erreko, eta horiek oro Jain-
koarentzat! Ez ditake Jesu-Kristoren adichkidea dela erran
hola baizik!»

Mila bortz ehun eta berrogoita bigarren urteari udazkena agur
erraterat goan, Eskual-Herrian aditzen den bezala: Berruila
zen

6

Palabarrekina... Erabankoren.

Ez ditugu Eskualdunak diren baino gutiago egin nahi: badakigu gutiz gehienak eskolan ibiliak direla orai eta lutelestia "guzia ezagutzen dutela nor-nahik bezen ongi. Ez dugu beraz demborarik galduko Comorin eta Manaarrekiko ugartera eta liburu hontan hemendik goiti irakurtzeko dituzten herri batzu nua diren errateko.

Palabarrak erraten zuten Comorinetik Manaarrekiko ugarteraino biziz ziren populueri. Itasoaekin eta itsas ohin mahometanoekin borroka ari behar zuten arrantzale gaicho batzu ziren gehientsuak. Ebanjelioko egiez argituak izanak, etzuten gehiago girichtinosen izena baizik. Horra noren ganat joan zen Goatik Frantses Tabier.

Han bi urtez ereman zuen baizik bertze nor-nahi hamar aldiz hilaraziko zuen: arima gaicho keien amodioak orori ihardokitzeke indarra eman zion misionest sainduari. Etzen segur oinez baizik ibiltzerik ^{han} ~~baizik~~: etzen sekulan bertze janik berak egosten zuen irrisa pichka bat baizik; edaririk, ura baizik: egunean bi oren lo, eta dena ere luraren gainean, arratorn, gau-ainhara eta sugeen erdian. Horren gainerat, chinaurri zuri txar batzuek solana eta soineko gehienak laster iretsicherik, erdi biluz ibili

(1) Erdaraz "la géographie" erraten zaien lutelestiari.

27
26
25
24
23
22
21
20
19
18
17
16
15
14
13
12
11
10
9
8
7
6
5
4
3
2
1
0

23 / behar izan zuen, hotzak hila zenbeitetan, iguzkiak errea bertze batzuetan: maizago naski errea, toki hetan!...

Bainan bada zerbeit lekhu hetan gehiago kechatu zuena, huma ezen handik hamalau ihabeteren buruan igorri zuen guthun batean zer irakurtzen dugun: «Hemengo mintzaira, palabarra da; enea aldir, Eskuara!» Nola predika beraz, nola egin katichimak? Ez da dudarik predikua eta katichimak ongi aditzea nahi duenak herri batean herritarren mintzarian egin behar ditela!

Segurki ez dugu aharzten ahal, Frantses. Xabier dohatsutu zutelarik, lekuko zenbeitik hau finkatu zutela eta Elizak onhartu: bertze orduz Apostolueri bezala Jainkoak Eskualdunari noiztenka bederen eman ziola ez jakien mintzaira batean mintzatzeko dohaina! Bainan Jainkoak ez du nahi duenean baizik holako mirakulurik egiten. Nola nahi, aphez batek ez dezake konda, ez du kondatu behar Jainkoak eginen duela ton guzia: bermatu behar du herrian herriko mintzairaren ikasterat, eta ahal bezon ongi ikasterat! Bermatu zen Frantses. Xabier eta, betri berekin zituen hango bi lagunari esker, palabarrarekin aski trebatu.

Ber lanak ibili zituen orduan herri-herri! Dakitenek erraten dutenaz, zenbeit dembora egoten zen herri bakhotehan. Goiz-arrats guziez chilintela bat eskuan etchola multxo gurjietarat janik, haur eta burhato guziak norapait hil-arazten zituen, lehenik orri batean othoitzak eginarazten jiozkaten, eta gero, behi, harruka edo zuhaitz, zenbeiten puntarat iraganik, prediku labur eta sarkor bat egiten. Holako lanek jada lehenago girich-tino jironak beren baitan sar-arazi zituzten eta laster urhats onetarot itzul-arazi. Bainan paganoak berak etziren gogor egon, ezen errana da ilhabete baxhar batez hamar mila bathaiatu zituela, edo bathaia-arazi, kolek errateko! Berak nola eginen zituen?

Apostoluarren format aditurik, Erabankoreko erregeak haren meneko lurretan fedearen predikatzeke baimena igorri zion hainbertzenarekin. Mala hunkitu zituen hango pondeak ere nun beren jainko faltsoak chehate baitziturten hainitzek eta heien temploak aurdiki.

Egia hau da haatik: Frantses. Xabieren predikuekin, jada egiten zituen mirakulua ederki lanean ari zirela predikuen alde! Bainan hango eta bertzetako mirakulua atz detzagun bertze nunbeit oro lerroan kondatzeko.....

San Inazio eta San Frantses. Xabieren eskuarazko liburuan hitz hauk irakur

24 / ditayke nunbeit : « Coilaneko pendea kausitu zuen baxharrik gogor eta herrebes ». ^{dugu} Ba, uste ^{dugu} nihun ez duela hura bezen gogor eta herrebesik kausitu ! Bainan nihork ez luke uste izan behar bertzetakoak guk hemen erraten dugun bezen aise biltzen zituela . Erabankoren ere debrua etzagon lo : ez da sekulan lokhartzen, ongiari traba zerbeit egiten ahal dion ber . Eta eldareko erregeak Erabankoreko erregearen etsai minak baitziren, heieri eman zioten Fernuak bururat girichtino berriari bederen ukho eginarazi behar zitela . Beharrik, otso errabiatuak etziren heldu bildotaketaraino ! Sainduak lotsatu zituen . Huna nola .

Abila bertz ehun eta berrogoita laua zen : Ekharra erditutan . Goy batez eldareko soldadoak gero eta gehiago hiribiltzen ari zirela aditurik, untyi batzuekin heieri buruz ariatu zen Saindua . Pidez erditaratuhe zireneto, hona nun jauzten diren laize gaichtoak eta hatarretzen itsasora . Gibelat egin behar izan zuen beren lagunekin Frantzes Xabierak eta oinez lothe ziren bidari . Etzizuzten berehala buruz buru egin behar etsaiak . Hurur ilhabeta handiren buruan baxharrik ! Urunean kusi zitueneko, bere gurutzefika eskuan hartu zuen Sainduak eta airea lau aldetarat beneditkatu . Thesari eman ziren etsaiak ... eta gerortik beren eremuetan egon, higitu gabe ! Gurutzefikak lotsatu zituen .

Jaganoak ere herrian jagarri zitzaizkon frangotan . Beharrik behin, bada-kuqu aldi batez jaua hosto meta baten azpian iragan behar izan zuela ^{numbe} hil nahi zuten choritto batzuen artaparretarat ez erortzeko . Bertze aldi batez norbeitak harrikaldi batez aski kolpatu zuen . Kirurgarren batez gitek egin zuen ez baitzuten bere lastozko etcholan bizirik erre

Jada bertze norapeit joan behar zuela buruari emanazion Sainduak . Bainan etzen itsua eta bazakien haren obrak etzuela irauenen, ordaintzat norbeit urten ez bazuen . Sur hobereetan landare txarrak aise nauiltzen dire, lantzen ez badire . Misionest batzu Goatik ekhar-araz zituen beraz eta Erabankoren landatu . Ongi egin zuela geroak ongi frogatu behar zuen . Ezen horri zeri esker, handik ehunbat urteren buruan, Erabankoren errege bat kausitu zen aski girichtino on eta azkarra misionest protestantkeri buru atchikitzeke eta heien elke polliteri ihardesteko : « Gu protestant egin ? Gutartean egizue lehenik Frantzes Xabier Sainduak bezenbat lan on eta mirakulu ... eta ikusiko dugu ! »

25

Manaarreko ugarterat misionest bat bazuen igorria hirur
ilhabetek hartan. Hain chuchen horra nun berri tehar batzu
heltzen zaiykon handik. Oi, zoin gogotik joanen zen harat hango errege
tzarrari bi begien artean egia zenbeiten errateko! Painan itsasoa han-
ditu eta hasarretu zen betbetan, etzitaken untzirik mentura. Zer egin?
Eskuak gurutzia eta pausa? Etzen odol hortakoa Frantses. Xabier.

Coilaneke alderat itzuli zituen orduan begiak. Gada
errana digu nihun etzuela han bezen jende gogor eta herrebesik
kauditu. Blabainan lur sakratu bat zen Coilan hainitzentzat. Ehenik
Paganoentzat, Rama heien Jainkoak gaztean han hautatu baitzuen Sita
bere emazte pollita! Gero Doudharen dizipuluentzat, Gautama famatua
Coilanekeat joan omen baitzen orotarik ihesi! Itzkenesan Mahometano-
entzat, heien urtea omen baita Idam eta Eba, turreko Parabisutik igorri
zituelarik Jainkoak, Coilanen kokatu zirela!

Dertzalde dembora hartan dotzena bat erregeekka
bazen Coilaneke ugartearen. Etziren behi elgarrekin odol oro. Horra zertako
Portugeseri laguntza galdetu zitoten Frantses. Xabierak. Eliza katalikoa
maite zuten han zaindiko Portugesek, bainan beren buruak maiteago, eta
Coilaneke erregeekkak ez samurtzeko, etzuten misionest saindua lagandu.
Gaitzitu zitzaion eta, Portuges gurziak beren alde utzirik, Pasionekeo igan-
dean Nagapatameko portuan beerritu untzia hartu. Norat joateko? Melis-
parrerak.....

7 Meliaporren.

+ [Beixeira jaun aphezpiku Portugesa Meliaporren egoten da egungo egunean. Hiri famatu bat zen Meliaporre orduko, ezen inguruetan bazeen hobi bat zer-nahi jende bil-arazten zuena: San Tomas apostoluaren hobia. Jorji galdez Joan Frantses Xabier apostoluaren hobirat. Coilamen ez zitaken aise sar eta Comorinen etzuten haren behar handirik gehiago. Hoin eskualde berriri buruz alia? Hori nahi zion San Tomasen mediez Jainkoari galdetu.

Etyen hirur ilhabeteren buruan baijik ethorri argi hori. Badakigu anhartean itsasturien artean gabilala Ioin dua egunaz: gauak othortzean zeramatzan, parte handi bederen.

Meliaporre, ahal zen hiria zen. Gaiektakeria eta kokikeria baijik etzen alha hango etche eta kavriketan. Elizak ordura hutsak zauden. Humbertzetaraino nun norbeitik erraten omen baitzuen « ez da hemen gehiago onik sar Tomasen gorputza baijik! » Frantses Xabierrek erratik khambiatu zuen. Hango aphezak berak harrituak zauden nola koinbertze lan egin zitaken hoin dembora gutiz!

Gaspard Celho aphezaren etchean egoten zen Frantses Xabier. Torrats batez loriatua ikusirik, Saunduari galdetu zion zer zuen bada: « Zer dutan? Ori, Jainkoa orheitu dela nitaz! Bihotzeko bake eta gozo handi bat igorri dauzkit arkenear! » — « Eta zer erron nahi du horrak? » — « Ez dudala

27
26
25
24
23
22
21
20
19
18
17
16
15
14
13
12
11
10
9
8
7
6
5
4
3
2
1
0

hemen egon behar gehiago!» — «Norat joan gogo duzu beraz?»
— «Jainkoak manatzen dautan bezala, elalakarat. Ez banintz joaten,
gaitzi lako eta segur goiz edo berant, mundu huntan ez bada bertzean,
zorozki gartzigatuko ninduke! Joanen naiz, haatik!»

Bainan ez dezagun Frantses Xabier elhiaporetik elalakarat
abiatzerat utz elhiaporen egin zuen lan handia liburu bati khendu gabe:
«elhiaporre guziak famaz ezagutzen zuen hita handia. Helde zela
entzutearekin, jende oste bat joan zitzaion biderat. Topostolua berehala
lotu zen lanari, zer egin bazela iduriturik. Haren hitzak bekatorosik
handienak hunkitu zituen eta beren hutsen aithortzerat ekharri. Erro-
kizun bat bazen, Frantses Xabieri ihardokitzen zuten guziak heriotze
gaichtoa egiten zitela, eta etsenplurik ikharagarrienak ematen zituzten
errankizun horren alde. Hortakotz gutiak ziren, hura entzunez geroz,
bekatuan gogortzen zirenak: bazren haatik bakharito batzu, eta Jazinto
portuges aberats bat, Frantses Xabieren adichkide chaharra, hetarik zen.

Eguerdi batez, bazkaltzerat helde zaió Frantses Xabier. Jateko
demboran elheketa hasten dire eta Sainduak choratzen du bere elle eder
eta maitagarriez, bere izpirituko hedadunaz: bainan egitekorik handienaz,
orori aiphatzen dioten salbamendunaz ez dio hitzik aipatu. Gogoetatzen
da Jazinto eta bere buruarekin egiten galdutzat daukala Sainduak, ez dimaz
geroz salbamendua aiphatzen. Deborlatua, badao Sainduaren ganat.

— Hita, zure ichiltasunak lotsatu nau: nitaz ez ahal duzu etortu?

— Ez, Jazinto maitea, ez. Bertarik iduritu zaitzu etsitu dudala?

— Ere arima dohakabeaz ez baitantazki hitzik erran!

— Deus irabaziko othe nuen? Entzunen othe ninduzun? Uste ukhan dut
ichilik egotea nuela hoborena!

— Jh, hita maitea, zuk deus ez erraiteak nau lotsatu eta inharrosi! Zurekin
bazkalduz geroz, ez da enetzat sosegurik, ez da bizitzetik! Oraino dembora
bada, urrikal zakizkit!

— Jazinto maitea, astia baduzu oraino, bainan sakrifizio handiak egin behar
zintuzka!

— Eginen ditut: salbata nahi dut...

Bizi guziko kofesioa eginarazten dio Frantses Xabierak, eta bertze gizon bat egin
arraz guichtinoki bizi uzan zen Jazinto.....»

Agorularen ondartsuan hartu zuen unzia elalakarat joateko. Huna elhia-

28 / porretik zer gartziatua zioten lehentehago Erromako jesuitari: « Hiri
hau urten dut, Malaka alderat joateko: harat deitzen nau Jainkoak.
Ez badut untzirik, taula baten gainean joanen naiz. Jainkoa da ene untzia,
Jainkoa ene izarra. Jainkoaren ondotik, zuei nago, anaia maitak! »

Bainan, norapeit joatea deliberatu zueneko, nola etzuen
untzi batean chokho bat atchemanen Frantses-Xabierek? Jada itsasturi
guziek ezagutzen zuten omenez bederen eta oro fida ziren harekin ez
zitzaioletela makhuirik gertatuko, halako Saindua zabilkan untzia etzela
galduko. Hango itsasoan irristu hainitz bazen. Kenbatetan, ondoa ez
jotzeko, untziak etziren oro gainera gain urerat igorririk hustu behar! Otho-
izak baizik ez du itsaso hasarre baten kontra indarrik eta guziek bazakiten
Eskualdunaren othoiztek indar handia zutela. Behin baino gehiagotan
batzuek edo bertzeek jada frogatua zuten, liburu guzietan irakurtzen dugunaz.
Nork daki etzuen holakoetan Frantses-Xabierek « Manual Debozionerkoak »
dakharren othoiz hau egiten?

« Jauna, ikhuraizu gure ezin egin handia,
Nola doakun ondora, ura hartuz, untzia:
Izuen fagora gaitzazu zolara ez goazen
Eta supituki urean itxo ez gaitzen »

Bertzalde bere bidea gal zezala untziak eta lotsa zadiela gidaria, othoiz
bat egin orduko Eskualdunak bazakien nuntzu zen. Jainkoak argitzen zuen
holakoetan eta itsasoan ibili den bizpahirur urketan frango aldir turra
aintzinetik asmatu izan du: « Dohar ez bada, etzi turra ikubiko dugu: ez
lotsa! » Eta turra agertzen zitzaizten nuntzu

Horien ondotik, eta hasian hasi, batere etzauku tokiz kontra iduritzen bertze
elke batetarat lerratzea hemen. Othoiztean othe zeraman beraz untzietan
bere dembora guzira Sainduak? Ez. Bazakien, behar zenean, itsasturieri
estkuaren ematen laneko: bazakien heien solasaldietan mihiaren sartzen.

Heskin jostatzen ere ba zenbeit aldir. Eta lan, solasaldi eta josteta guziak
bethi bordin bururatzen ziren: belhauniko.

Errana da belin Frantses-Xabierek guzien artean ahal den bezalako itsasturi
baten untzia hautatu zuela norapeit joateko. Dohakabe harek etziteen Phag-
koak eginak Gazpi urthe hartan. Egun batez, kartetan lagunekin hasirik,
zituen sos guziak galdu zituen eta arnezuka hasi. Herbildu zitzaion Saindua
eta diru puchka bat eman, harekin, galduak irabaziko zituela erranik. Egin

29 / zituena... eta bertzerik ere ba. Handichagorik irabazi behar zuen
ondochean: Jainkoaren adichtidantza.

Bertze behin Frantses-Xabier hola-hola adichtidatu zen aintzindari galde
batekin. Hastean ez ziotzkan hain onak eta kontrakoak, iguzkia eta izarrak
buzirik aipatu. Jainkoaz mintzatzen hasi zitzaionean, aintzindariak ez
adituarena egin zuen: kofesatzea aipatu zionean, iruzin habi. Hainber-
tizenarekin porre batetatara heldurik, Sainduak galdetu zion eian ez lukeen
itzuli itxi bat inguruetara haren egin nahi. Daitz. Eta berehala joan
ziren ligak, beso, beso. Dainon hona nun sasi batean Frantses-Xabierak
bere sotaba chakarra khentzen duen, eta zaharo batekin bere burua phorro-
katzen duen, odola purrustan abiatu arte!

- Bita, zer egiten duzu hola?

- Zer egiten dutan? Zuk egin dituzun bekhatu kharagarrien barkhamendua
galdetzen Jainkoari, zeronek ez duzunaz geroz egin nahi!...

Aintzindariak, gauzian joanik, zaharoa khendu zion eskuetarik, han
beretan belhaunikatu zen, eta hipaka nigarrez kofesatu...

Holako Sainduak itsaboaren hasarreak ezliturik ere ez da harritzeko.....

8

Lehenik Malakan - Urrunago gero.

Itsasotan harasko da Malaka: ilhabeto oso bat eman zuen bidean untxiak. Eraba guziak garhaiturik portuan sartu zeneko, berria laster hedatu zen hirian «el santo Padre» hartan zela eta Portuges guziak lasterka bildu ziren itsas-hegirat. Jonek beren haur txikiak han zituzten besoetan. Etxiren guti harritu haur baxhotchari bere izenaren erraten aditu zutelarik gerochago Saindua!

Ondikotz, eliztarik aspaldi urrundak bihi ziren, girichtinoak izanagatik, Portuges horiek berak. Espaldiko legea da beraz etxetik eta herritik urruntzea aski dela aintzineko oitura on guzietan ukho egiteko eta laster lasterka okharztagarrianean pulunpatzeko. Ez da ~~harritzeko~~ harritzeko egungo egunean hori bera gertatzen bazauke or. lekhitik hirietarat doaz in hainbertze Eskualdunekin! Jone gehiago Jomeriketarat doaz in zenbeitekin bederen! Ochala bidean Kandi balazate Frantses. Labir bat, demora deno, beren baitan sar-araziko dituzena!...

Malakako Portugesek biharamunetik beretik elizako bidea hartu zuten, orok ez bada, gutiz gehienek. Jada aipatu Eskuarazko liburu haren hain poliki erraten dauke azkenean oro onerat itzuli zirela! «Terrai-
nik handienak gibel egon ziren hastean, bainan hek ere bere amu Sainduz
bildu zituen».....

Her othe ziren amu saindu horiek? Jada kizu segurki, orotan irakurturik,

31 / nihun ez duela egundaino Malakan bezenbat mirakulu egin Frantses-Labierek. Baina mirakuluek ez dituzte, bakharrak, kolako jendeketak konbertitzen. Egiten ikusten dituztenak, ba: bertzeak ez. Tomuak, Sainduak Malakan ere orotan bezala egiten zituen prediku sarkor, katicima paregabe eta bertze lan hek ziren beraz! Othoitzak bertzalde, erran gabe doa. Eta Malakako Sainduaren haizeok salatua dugu nola gau guziez etcholako Kanaberen artean oren osoak belkauriko ikusten zuten bere gurutzefikaren aintzinean, mar mar mar othoitzean ari, azkenekotz loak harri handi eta idor baten gainerat aurdiarte!

Nafartarrak bazuen urrunagoko ugarte batzuen aditza: hetarat joatea deliberatu zuen, Malakarrak urrats onetan fintkatuak ikusi zitueneko. Itsoan zer-nahi ikusirik eta itsas-ohoin batzueri doidea espakaturik, sei astoren buruan zangoa pausatze zuen Tomboinako leihorrean.

Tomboinen hirur jende mota baziren: Portugesak, Malesak eta Jelfourruak. Jelfourruak hauk jende bada batzue ziren, biziki gochoak haatik; Kampotiar bat ikusi orduko lasterka sabietan gordetzen zozin. Ez zitzaizten aise hurbildu Frantses-Labier Sainduaren kantu ezteki bildu zituzten azkenean. Jero hainbertze lausengatu zituen eta hainbertze ongi egin zituen nun arras maitatu baitzuten! « Hainitz lan egin dut » dauku Sainduak erraten, gerochago Erromarat igorri zuen guthun eder batean.

Ernate deitua ugarte bat bazen oraino urrunago. Harat ere joan zen eta hango jendea kala bildu nun gauaz urrundu behar izan baitzuen, girichtino gaichoen nigarrak bihotza ez hausteko. Beldurra dugu nihun nihork ez duela hainbertze maitatu kurritu dituen hornialde guzietan!

Baina Jainkoa oihuka ari zitzaion elloreko ugartetik era. Jende kide guziek zer-nahi egin zituen harat ez uzteko. Halabainan bada zen hango jendea, eta bada gaichtoenetarik. Erana zen Kampotiarrak ez zutenear hiltzeko, beren emazte eta haurrak hiltzen zituztela hango gizonek! Etxuen heriotzak lotsatzen Saindua.

Guzien gatik ugarte lotsagarri hartarat abiatu zenean, sendagailu eta kontra-pozoin batzue bederen eman nahi izan zituzkaten. Etxituen hartu, hobeki irakusteko Jainkoak bere langileak ez dituela uzten. Eta egiatzki iduri du Jainkoak berak etzuela nahi deusik har zozan, bere gurutzefikaz kampo. Beha bada. Egun batez itsaso bethean demora ohiestu zitzaizten eta haize gaichto bat jauzi. Uhinak untzia phorrokatu behar

321 / gutela iduri zuten. Itzasturi guziak lotsatzen hasi ziren: Saindua,
batere. Othoitz labur bat eginik, bere gurutzefikaz itsasoa hunkitu zuen.
Ondikotz, itsasoa berehala eztitu bazen, Sainduak gurutzefika eskutik
lerratzerat utzi zuen eta urak ereman zion! Nor-nahik aise asma
dezake Frantses-Xabieren bihotzmina orduan! Nigar ere egin zuela
irakurtzen dugu eskutan ditugun liburuetarik batean. Hlabainan
gurutzefika hura zuen bere bethiko laguna: hura bere bihotz-altcha-
garrua: hura bere ontasun guzia. Ordu arte harekin garhaitu zituen
oro eta bazakien handik goiti ere hala egin beharke zituela. Pelhauri-
katurik, mirakulu guzien Obratzaileari sukarki galdetu zion itzul
yezon. Biharamunean, elloreko leihorra hunkitu zuteneko, orok zamar
handi bat ikusi zuten gurutzefika aytaparetan uretik atheratzen. Jain-
koaren mandataria zen. Ederki Saindua hurbiltzerat utzi zuen, eta gero,
gurutzefika aytaparetarik khendu zioneko, berritz urean sartu eta
urrundu.....

Her egin zuen Frantses-Xabierek Moreko jende baba lotsagarrietan? Huna
zer erraten daukun berak: « Hainitz eta hainitz bathais egin nuen eta
chokho guziak ikhertu ». Iduritzen zanku hainitz, erran nahi dutela, beren
laburaren gatik, hitz horiek: Chokho guziak ikhertu! Bainan ere zer ez
ahal zuen jasan gose, sukhar, porzoin eta etsaien saeta zornotzekin! Ma-
hometanoak frangotan jazarri zitzaizkon eta oihaneko sasietan gorde
behar izan zuen. Eta, Moretik urrundu zenean, ez othe zuen bertze ordur
Jondoni Faulok bezala erraten ahalke: Heriotzea noiz-nahi hurbildik
ikusi dut? Hise sinkets ginezake baietz.

Eta orai, Eskuarak nahi balu bertze mintzaira zenbeitak bezala plegatu,
badakizue gogoan duguna nola erran ginezaken? Frantses-Xabier nahun
ez dugula jende baba horien erdian baino Frantses-Xabierago kausitu,
dena su eta dena amodiva lagunarentzat, achola gutirekin edo hobeki
batere gabe beretzat!

Han gairi bada bertze ugarte tipitto frango. Gutiz gehienetan
agerraldi bat egin zuen Sainduak, bainan etzanku balio orotako
chehetasunetan sartzea: bertsuak litazke. Guro irakurtzaileak
ikusi dute orai arte ez dela hainitz geldirik ^{Frantses-Xabier} ~~egon~~: han ere egin zuten
lide eta lan. Eta bihotza atseginez betha itzuli zen Malakarot
mila bertze ehun eta berrogoita zarpiko uda hastean, gerochago igorri

27
26
25
24
23
22
21
20
19
18
17
16
15
14
13
12
11
10
9
8
7
6
5
4
3
2
1
0

23 / Zuen guthuneko bi hitzek salatzen daukuten bezala : « Kontsolatu
nautela. »

Zainkoak zabilkan. Hemezortzi ilhabete bazuen Malakatik joan
zela. Itzuli zeneko, aintzinerat ethorri zitzaion egundaino ikusi etzuan
gizon beltzaran begi bichi bat eta lurrerainoko agur pollit bat egin :
Angero zuen gizon horrek izena eta Japonesa zen. Jospaldi Sainduaren
ondotik zabilan, haren famak aditurik, konbertitzeko.

Etzituen Japonesak ezagutzen Frantses-Xabierak, baina laster ikusi zuen
ez zirela ordu arte ezagutu zituen gizadiak bezalakoak, hainitz eta
hainitz erneagoak zirela eta zerbeit ikasi nahiagoak, eta Angerori
mila chehetasun galdetu zizkion bere herriaz eta herritarrez : « Erazu,
Angeru, aste duzu Japoniarat joaten banintz, zure herritarrek entzun
nindezaketela ? - Hita, ez berehala naski, deus ez baitute ainerat egiten :
bainan zure elheak gustatzen bazaitzote eta nik bezala frogatzen ahal
badute zure elheen arabera dala zure bizia, oro laster jarraituko
zaitzkitzu ! - Ba othe ? - Ez dut den gutueneko dudarik »

H
Handik zerbeit egunen buruan, egundaino bezala untzi batean joan Fran-
tses-Xabier, amets handi eta gozo bat gozoan

9.

Han eta hemen, Japoniarat joan aintzinean.

Itasoaan hirur egun handiz behinere oraino ibili etzituen bezalako jauziak ibilirik, bainan berriz ere othoitz batez ur-mendoi ikharagarriak zebaturik, Cochín jada ezagutzen zuen herrian jautsi zen eta gelditu Frantzes-Jabier, handik agian Japoniarat helduko zela zerbeit gisaz. Hain chuchen, Cochinen kaubitu zuen, bere karguko itzuliaren egiterat ethorria, Goako jaun Jophez-pikua. Ber atsegina segur batentzat eta bertzearentzat! Bainan mintzatzzen hasi zire-larik, etzioten berru guziak atsegin bera egin Sainduari. Bide batetik gober-namenduak igorri gizonak ez zituzten misionestak lagundu nahi, bertzetik misionestek berak etzuten naski bethi arrias ongi elgar aditzem! Bihotzak gandi egon zion eta Japonian baizik etzuela sodegurik izanen gehiago egin zuen bera baitan. Horren gatik etzuen berehala itsasoari lotu nahi izan eta Com-riako bidea hartu zuen. Her egun gochoak iragan zituen aita Enriquez, Giminak eta Cyprianorekin! Ederki lanean arizanak zirela ikusirik, gain-gainetik laudatu zituen hiruek.

Erabankorerat ere joan nahiko zuen, hasian hasi: etzzen joan. Aste eskizez ala errektadunik ez ukhanez, ez dakigu. Hitz bat igorri zion haatik hanga misionestari, lotatzzen hasia zela iduriturik: "Urte duzun baino ongi gehiago egiten duzu Erabankoren, ez lota beraz. Debruak etzaitu

35 / ikusi nahi, hortakotz ematen dautzu bururat bertze nunbeit lan
hoberik egin zinezakela. Ez zarzula uste izan. Laude beraz othri hor
berean! »

Ezagutzen dugunarekin, Coitanerat agerraldi bat bederen egin gabe
nola egonen zen Frantses-Xabier. Egin zuen, bainan behengo traba berak
kauditurik, Goarat joateko untxian laster sartu zen. Goako goberna-
dorea berria zen. Soldado bihotzidun bezen girichtino azkar, Sainduarentzat
laguntzaile hauta izan behar zukeen Juan de Castrok. Ondikotz etzuen
Frantses-Xabier ezagutzen! Ezagutu zueneko, nahi zituen guziak hitzeman
zizkan. Berantegi: Jainkoak etzion hitzaren atchikiko astirik utzi: bere
ganak daishu zuen, betbetan.

Hortartean Comorinetik galdetako ^{ari} ~~harriak~~ ziren Frantses-Xabieri, behinera baino
gehiago gaichtakerian harriak zitzaizkotela elhadureko etsaiak. Erran
dezagun berehala aita Criminale hil zutela handik laster etsai horiek.
Frantses-Xabier Comorinerat itzuli zen beraz. Harritzeko ongi-ethorria
egin zitien hango girichtinoak. Lortatu zen Saindua. Soria horrek etzion
vianu behar. Han ere laster frogatu zuen Elizak eta misionestek etzutela
deus izurikitzen horik Portugaleko mandatarari handien ganik. Eta etzite
zuen: « Japoniarat abiatzeko chedea dut, Gehiago holakorik ez ikusteko! Joda
ez othe dut behar den baino dembora gehiago galdu? »

Horrengatik, bertze itzuli bat egin zuen oraino Goarat. Ezken manuak eman
nahi zitzaizkaten hango Jesuitari: esku hori barjuan Erromatik abiatzea, bita
Sainduak eman zion mandatarigoaz. Bainan manu baino kontseilu gehiago
eman zitien. Kontseilu horiak egungo egunean ere balia ditazke nor-nahiri:
Estual-Herriko aphereri, urrungoeri bezala. Irigitara detzagun beraz
hemen, Frantses-Xabieren hobeki ezagutarazteko bederen: « Bertzeak
sainduarazi nahi dituen, bera saindu bedi lehenik Apherzak ez
gaitela harri zenbeitet Penitentziako eta Gorphutz-Sainduko sakra-
menduez dudatzen badute, geronek ez badugu bizj saindua: nola ez
dute dudatuko? Apherz batek betri begitarte etzia eta ona behar luke. Gaitie-
netik, ez dadiela nihorekin borthitza izan. Horrengatik ez dadiela aisegi
adichkide nor-nahirekin, eta bereziki bertze munduko zerez mintzo delarik ez
dezala ahantz egungo adichkidea bixar etsai dukeela Estuak betri libro
atchik detzala apherzak, nekhe baita zerbeit eman duenari behar orduan
jazartzea. Dohain handiegitik ez har beraz Predikuetan ez mintza predi-

36 / Kalkiarekin ikustakorik ez duten zerez : behinik behin, politikarik ez aipha..... Kofedorrak kofesioan ez dezala lotsa nikor : bekhatoros handieneri ez dezala erabiarik egin, bederen bekhatuak aithortu ez dituzteno, baita ere erasia tipienak mututuko dituenak. Hobeki, apherzak kofebatzerat heldu Jaizkonak lagunduko ditu : zenbeit aldiz, handiagoak ere egiten dituztenak badirela erranen diote. Eta guziz mintzatuko Jaizkiota Jainkoaren bihotz on eta barkhatzerat ekharriaz.....»

Erran gabe doa kontzeilu horiek gure Estkuarak baino hobeki eta sarkorkiango ematen zituela Frantses-Jabierak : nikorik ez dezala dudak.

Mila bortz ehun eta berriogita bederatzia da. Josphirilaren hogoitia bortzean abiatu zen Japoniari buruz Saindua, laguntzat Jongoero, aita Cosme de Torres eta Juan Hernandez frailea harturik. Etzezaketen lagun hoberik hauta : Jongoerok bazakien Japoniako berri, Cosme de Torres etzuen deudek lotsatzen, etzen Juan Fernandez baino gizon legunagorik. Alhabete baten buruan Malakan ziren : alabainan etzen bertze biderik : etzezaketen han baizirik untzi bat atcheman bururat heltzeko.

Irakurtzaille guziek aise asmatzen dute Malakanek bidetariari egin zioten ongi-ethorria : guziz Estkualdunari. Hain gogoan zuten oraino ! Loriatan geldiaraziko zuten berentzin eta egin-ahalak oro egin zituzten hortako. Begietan eman ziozkaten Japoniarateko bidetako irriste ikharagarriak, erran horat abiatzen ziren untzietarik erdiak bederen galtzen zirela, eta bertze holako zer-nahi. Debaldetan : etzuten bildu, eta irriz ihardesten omen zioten : « Oi, fede gutako gizonak ! Nik ez dut Jainkoaren beldurra baizirik : Hura da ororen Naudia ! »

Etzuen aise atcheman haatik untzi bat : adichkide guziek azkenean hitza jan zioten, eta Jondoni Joani arratsan Lapurra deitzen zuten gizon tzan baten untzian sartu behar izan zuen. Edonik ikusi zuen Lapurriarekin bidetan eta beldurtzeko da sekulan etzuela Japoniako leihorrik ikusiko Jainkoa bera urrikaldu ez balitzais eta, Sainduaren othortzek hunkiturik dudarik gabe, egun batez nikorik igurikatzen etzitzen haize batzuek hartu ez balute. Hartu, eta, Lapurriak golkoan zuten chede gaichte guzien kontra, zirurikan Kihuduko ugarterat eraman ! Josphirilaren hamabortza zen, bndredena Manjaren phasta. Egun handia Eliza katolikoa zentzuz, gerorak frogatu behar zuela. Sekulan etzitzen menturaz Mugabura, Gracy, Lissarrague, Chabagno eta Japonian ibil diran misionest. Scharrek bildu dituzten uzta edonak bilduko !

37

Egun batez Frantses. Xabierrek hitz hau igorria zion Goatik
 Inazio-Loiolakoari: « Bita zenbeit balinbadituzku hortxo lanetako on. ez
 direnak, aski dauzkidatzu igortzea: hemen gaindi osagarria eta arimen
 amodiora aski dituzte, ez dute jakitate handi beharrik ». Egeri da Eskual.
 dunak etzuela oraino Japonia epagutzan. Eastez frogatu behar zuen, lan
 zenbeit lan egitekotz, jakitatea ere behar dela. Goako eta Japoniako
 basa-aphezak arras biga ziren, eta Japoniakoak aski berriak ~~eratu~~
~~eratu~~ eratu. Baina Frantses. Xabierrek aski eskola handiak eginak
 zituela badakigu Japonesez bertzeri ere buru egiteko, Japonesez bertzeak ere
 garhaitzeko.....

Sainduak bidean, edo lehenago, buruari emanazuen Japo-
 niarrok heldu orduko hiri-nausirat joanen zela eta Ezegeari berari
 erranen ziola zertarat heldu. Etzakien hango eremuen berri: hiri-nausia
 aise urrunegi zen Kikusutik harat menturatzeko, eta Kiangoshimako
 herrian hazi zituen bere lanak, zuhurki.
 Kiangoshima — geroztik Kiangoshima erraton diote orok — ez dakigu
 zer heinetako herria zen orduan: orai hiri handi eta eder bat da bere
 karrika, saltagi, ikastegi, eliza eta hiruetan hogoi mila arimetan.
 Ehen hiri hauzoo Nagasaki du.....

10

Japoniako lehen lanak.

Kangoshiman bizi zen ugarteko erregechka, Kimatzu. Erregechka horri « daimio » erraten zioten Japoneseek. Ikusterat joan zitzaion zenbeit egunen buruan, Angero lagun harturik, Frantses-Xabier. Angerok erran ziozkanen gainean uste izan zuen Portugalako arrakoidari guziak berehala han zituela beren untzi ederrenekin eta, ez baita Japonesei bereri diruaren amodiok eginarazten ez duenik, Japoniako jaunko faltu guzien gatik, Sainduari eman zion nahi zuen tokietan eta nahi zuen bezenbat predikatzen hasteko baimena.

Ondikotz, hango mintzaira etzakien Frantses-Xabierek! « Hemen ez dut ichtitza baizik » dio berak ondoko egunetan igorri guthun batean. Baiman zerbeitbat bederen aski laster ikasi zuen eta karrikaz karrika abiatu zen predikatzen. Her egin zuen?

San Inazioaren eta san Frantsesen Itzulia derizkan liburuari aspaldi deus ez diogu hartu. Huna bada, hitzez hitz, zer erraten dautzuen hemen: « Puru-
zagiak aita handiaren aiphamena entzunik, baimena eman zion haren
peko herri guzietan fedearen predikatzeke. Kangoshimako hirian
gehienek ezagutu zuten eta besarkatu ».

Nur eta Kangoshiman etzen arras eta arras jende guti, hori ez da egia, ezen Frantses-Xabier harat joan eta urthe baten buruan etzen oraino ehunbat girichtino baizik, bertze liburu egile guziek erraten daukutenaren

(1) « Daimio » horrek ez othe du gure « jama » iduri?

39 / arabera. Eta hori finkatzen du ederki demboraren buruan Japonian
aditzen den elke hunek: «Bertze eskualde batzuetan sareekin arizana
bazen arraintzan Frantses-Labier, Japonian amuarekin arizan
behar izan zuen!»

Eskualdun liburu egile beraren arabera huna nota bildu zuen
hango jendea: «Itsas-hegian dabilan batez, arraintzari batzueri
so baratzen da Frantses. Arraintza tcharra dute. Sarea
hamarretan aurthikitzen dute urerat, eta hamarretan hutsa
altchatzen. Etcherat hutsik dokatzilarik, Frantsesek erraten
dite: - Herentzat etsitu duzue, haur maiteak? - Aita maitea,
ez da egun arrain aro. Bertzalde arrain guti da itsaso huntan
eta ez dugu lehen aldia hutsik gohazila. - Hots, ene haurrak,
berritz aurthikazue sareak. - Bainan, aita maitea, hainbertze
aldiz aurthiki dugu, eta bethi alferretan! - Ez etsi, ez etsi:
harroazue Jainkoa baitan konfidantza, eta aurthikazue
sare hori urerat.»

Urerat aurthikitzen dute sarea eta trenkate hurrana al-
tchatzen, hain da arrainez bethea. Biharamunean, ondoko
egunetan, gauza bera gertatzen zaiote. Handik harat guzia
arrain zen nang-shimako ura ».....

Gertakari hau ez dugu bertze nihun irakurtu, bainan deusek ez dauku
dudatzeko dretchorik ematen: hori bezen mirakulu handiak egiten dituzte Fran-
tses-Labierek! Baditake beraz hola ere zenbeit Japonese bildu zituen.
Gehiago egin zuken halere, bertze eskualde guzietan bezala, ongi
moldaturik gogoz erraten zituen prediku batzuekin eta orori ematen
zituen etsenplu ederrekun, sekulan, haren mintzaura hala-hulakoari,
haren traste bicheiari egiten ziozkaten ^{sozietate} ~~trufek~~ gabe: munduan ez
da Japonesa baino jende trufantagorik.

Basa-apezrak etzagozken kechatu gabe: herriak konberti-
tzearrekin beren irabazpideak galtzen zituzten, alabainan. Etchez etche
abiatu ziren beraz baizik eta Eskualduna sorgina zela eta iferruko
deburuekin bat egiten zuela! Handiagorik ere atheratu zuten: bereziki,
gizonki haragia janer bizi zela! Eta frogatzeko, noiz-nahi Sainduaren
etxolako athearen ^{ondoa} mihise odolertatu batzu hedatuko zituzten gauaz.
Horra zer arma dezaken herriak!

40 Dembora hortan Timatzu bera kechatzen hasia zen,
ez zoazkion oro nahi zuen bezala eta Portuges arrakard^{arion} untziak
elzauzkion, uste izan zuen bezala, portuak heldu. Bertzalde nunbeitik
ikasi zuen Frantses-Xabierrek bazituela itzuli bat edo biga eginak
urruntchagoko ugarte batetarat, harat ethorri Portuges batzuen ikus-
teko. Torras gaitzitu zitzaion. Basa-apherezek burua berotuz hainker-
tzemarekin, herritar guzietan jakinarazi zioten handik goiti konber-
tituko zirenak helen zituela.

Nola lan onik egin holako etsaiekin? Sainduak laster deliberatu
zuen urrunago joatea begitarte hobearen bilha. Urthea zuen Kango-
shiman zela. Hango girichtinoak Jengerori fidatuak, aita Cosme
de Torres lagun, hartu zuen bidea. Hiruzpalau egunek Firandoko
jauregi handiraino eremana zuten: Timatzurekin guti edo asti
jende zen hango nausia, Niuro. Sainduaren famak bazakizkan
aspaldi: lorietan ideki ziozkan beraz jauregi atheak. Huna
zen erraten daukun Frantses-Xabierrek berak: « Firandoko erre-
geak sekulako ongi-ethorria egin zaukun eta zenbeit egunik
barne ehumbat bathaio egin ginuen ugartean ». Niuro bera ez
bazen konbertitu, badakizue girichtino berritan zirela haren
emaztea, seme gehiena eta zenbeit sehi. Berehala errateko, handik
hamar urteren buruan bethi urhats beretan atcheman omen
zuten Luis de Almeirak Firandoko girichtino guziak.

Haste ona zuen Sainduak: etzen lotxartu eta demborarik galdu
gabe jo zuen Hiradoko ugarterat, aita Cosme de Torres Firandon
utzirik elizadi berriaren buruzagi.

Bainan ez gityaio Sainduari ugarterez ugarte jarraitiko. Badakizue
bertzalde zenbat ugarte handi edo txiki omen diren Japonian? Hiru
mila eta zortzi ehun. Etzen segurki Frantses-Xabier orotan ibili,
bainan nori daki zenbatetan? Kioto, Japoniako hiri handiene-
tarik bat zuen begietan: hari buruz joan bethi. Bideko berri
zenbeit, Yamaguchi bertze hiri handi batetarainoak Juan Her-
nandez jada aipatu fraile jakintsun haren emanen dauzka:
« Deusek etzen lotsarazten ahal aita Frantses-Xabieri, ez haize hotz
ikharagarri batek, ez elhurak berak. Ohoiak baziren alde
guzietan, guziz itsasoa: zenbat aldiz ez ginuen untziko zokho

27
26
25
24
23
22
21
20
19
18
17
16
15
14
13
12
11
10
9
8
7
6
5
4
3
2
1
0

27 / gordeenatarat jautsi behar izan horrestaka! Leihorrean, jakhu
bana bizkarrean, phuskatto bakhar batzuekin, aise nunbeitik
ethorri eskaleentzat hartzen gintuzten orok. Estalke bat baizik
ez ginuen bigentzat kampoan le egiteko eta behin baino gehiago
zangoak eta arzialak hartu zitzaizkion hotzarekin. Deus etzen
biharamunean etchetarik harrika urruntzen ez gintuztenean
haurrek!...

Hola heldu ginen Hakatarat, orok dakiten herri langiberat, eta
bita berehala joan zen hango basa-aphezen egoitzarat. Ongi
hartu zuten hastean, bainan gero? Egia erran, zer nahi egia igorri
zioten bi begien arterat. Ez ginen nahi baino lasterrago berri
bideari lotu!...

Ondoko bospasei egunak baino borthitzagorik guti ikusi dut ene bizi
gurjian! Eta horren gainerat etzen jolak egiten etzuen penitentziarik.
Ez ditake sinhets, nik bezala ikusirik baizik. Bide gurzia othoitzean
egiten zuen, begiak sekulan altchatu gabe, estuin edo ezker itzuli
gabe. Bidoak berak, nekhezago ibiltzeko, bethi gorphutzari josiak zuz-
kan. Jana ez dezagun aipha: oro onegiak eta sobera zitzaizkion: etzuen
irrisa egosi pichka bat eta ura baizik nahi!...

Hola heldu ginen Yamaguchiko hiri handi eta ederrerat ». Yamaguchi
ez omen da orduko itzala baizik egungo egunean.

Hain chuchen merkatua edo zerbeit holako zitaken egun hartan:
karrikak jendez betheak omen ziren. Urrunerat ikusi zituzten
haurrek bi bidekariak eta oro jarraiki zitzaizkion, harrituak.
Berrots hartan ere etzuen aise atcheman atherbe bat Frantses Ja-
bierak. Egundaino atheetan begitarate guti dute hura bezala
jautziak dabilizan gaichoek!...

11.
Japonian oraino.

Sainduak hitz bat bazuen norbeitik, urrikaldurik,
bidean emana Yamaguchiko adichkide batentzat. Saindua lagunt
zezan galdetzen zion. Bikaramunean argiko eremana zion mandata-
riak eta aise arma ditake zer laguntza galdetu zion berehala: othoi
zerbeit gisaz eta lehenbailehen ardiets zezon Yamaguchiko erregeari
mintzatzeko fagorea. Ardietsi zion laster.

Yoshitaka zen Errege. Phestari eta lokikeriari aski emana izanagatik,
etzien ^{hain} gizon makhurra. Ongi hartu zituen Franses-Xabier eta Juan Hernandez
kertarat heldu ziren galdetu ziotenean eta Japonesei zer irakutsi gogo
zuten galdetu, Franses Xabierek Hernandezi, hau hango mintzarian trebeago
zelakitz, irakurtzeko eman ziotzkan jada eginak zituen katichima eta
prediku batzu. Predikuetan baziren han-hemenka elke bortitz batzu:
hala nola, Japonesen jainkoak eta bada-ophezak deus etzirela; Japonese
gehienak urde batzu bezala bizirik zirela, etzutela chakhurrek eta cibere
hainitzek baino ongi gehiago egiten, eta jainkoak joko zituela ez baziren
khambiatzen; eta holako. Erregeak beretzat har zetzazken elke horietk.
Etzitzen egin edo bederen ^{etzuen} irakusterat eman deudik. Oren luze baton
buruan Franses Xabier eta Juan Hernandez sar-arazi zituen bezon
poliki kamporat igorri zituen keinu batez, hitzik ihardetsi gabe heien
predikatzeke galdeari. Juan Hernandez, berak salatzen daukunaz,

27
26
25
24
23
22
21
20
19
18
17
16
15
14
13
12
11
10
9
8
7
6
5
4
3
2
1
0

ez omen zen guti harritu kampoan bere burua oraino toinen
gainen hartate zuelarik!

Ezetz erraten ez duenak baietz erraten duela idurituak duda
gabe, Frantses-Xabier biharamunean berean predikatzen hasi zen.
Bidegurutze guzietan adi zitaken noiz-nahi sekulako jendetzearen
aintzinean. Bainan irri egiten zioten aditzaileek, edo bera bitxia
atxematzen zutelakotz halako larri churi, sudur chorrotch eta begi bixi-
bilekin, edo haren japonésaren mintzatzeke moldean ahal den bezalakoa
zela. Kun-eta etziren oihuka eta harrika hasten Sainduaren atheraldi
batzuetan!

Dena dela, Frantses-Xabierrek bi ilhabeteren buruan urhats bat bakharria
etzuen oraino eginik. Dembora galtzen ari zela iduritu zitzaion Yamaguchin
eta Kioto, Japonia guziko hiri-nausinat joatea deliberatu zuen. Abiatu zen.

Méqua ethorrichea zen ordukotz urthe hartan. Jada
bide guziak elhurrez estaliak ziren. Kenbat aldir etzuen gerrirainoko
urstan ibili behar izan! Sukhar gaichto batzuek hartu zuten hain-
bertzenarekin. Oro garhaitu zituen eta heldu Sakai deitue herri gothor
batetaraino. Han paubatzea uste zuen, bainan haurrek harrika
urrundu zuten etche guzietarik eta kampoan iragan zuen gaua.

~~Dauinara~~ Jainkoak ez ditu sekulan bere zerbitzariak
uzten eta norbeit, han ere, urrikaldu zen Sainduaz. Hasi esker, hain
chuchen buruzagi handisko bat baitzen Kiotorat bere sehi guzietan
abian zena, buruzagiak onhartu zuen Frantses-Xabier eta Hernandez beron
trastu tcharren gatik sehi on artean jarraik zaitzion. Bidean sehi
horiek egin zitokaten trufa eta gaichtakeriak ez ditugu haatik
erranen.

Frantses-Xabier nola heldu zen bizirik Kiotorat,
Jainkoak daki. ellirakuilu bat zanku kabik hori bera. Kangoak
hantu zitzaizkon zapartatzeko heineraino, erorka eta erorka
gorphutz guzia zauritu zuen. Etzuten, bada, sehiak faterat
eman zitokaten ondarrak hainitz atchiki, ez! Kiotorat heldu
zen halere.

Erecheda egin zuen. Kioton behar baitzuten Gurutzea lan-
datu, Joma Birjinari eliza eder bat altchatu, jainko faltso
guziak lehertu, ondikotz etzuen Gurutzea landatu, etzion Joma

HH / Burjinari eliza ez ederrik ez tcharrik altchatu, eta jainko faltso guziak chutik utzi zituen. Zer bihotzmina! Nihork etzion atterik ideki nahi izan, nihork etzion hitz on bat erran, eta hamar egunen buruko etsitu zuen. Torras etsitu gero! Hamakagorren goizean, lurra baino ilhunago, Hiradoko bidean Joan Juan Hernandez bere lagun leialarekin, aspaldiko «In exitu Israël de Egypto», hunkigarrria gogoan. Otsuleko Firandon zen eta Martchoko Yamaguchin.

Itchuria guzjen gatak etzuen debaldetan egin Sainduak Kiotoko itzuli hori: Japonesak ezagutarazi ziozkam bederen. Aditurik edo ikusirik, hauche ikasi zuen: deusek ez duela Japonian bihotz bat hunkitzen dohain tipi batek bezala! Eta lehen aldiari hain laguntza guti egin zioten Yoshikata erregeari zenbeit pegeseria ereman ziozkam, bere trastu tcharren orde jauntzi eder bat emanik. Jauntzi ederrak balio gehiago, balio handia eman behar zioten alabainan pegeserieri. Hala hala gertatu zen eta gure Yoshitaka gaizoa choratua gelditu! Hainbertzetaraino nun diruketa handi bat eskaini baitzion ordainez Sainduari. Sainduak etzuen dirurik hartu, bainan aspaldi erran nahiak zituen hitzak erran: «Errege, ni ez naiz diruketa ibelki hemen; arimen salbatzerat ethorria naiz!» Elhe horiek oraino gehiago harritu zuten Yoshitaka eta Sainduari aise eman ziozkam nahi zituen baimen guziak. Eta gainerat komentu zahar bat, han bizzi zadin bere lagunarekin

Erregea alde, gehienak alde behar zituen handik joiti Frantses-Jabierak eta bi ilhabetez nihor konbertitu etzuen herri hartan, laster bathaioa galdetu zioten zenbeitak bederen. Huna nola ethorri omen zitzaion lekona. Egun batez, Juan Hernandez zendetze handi bati katichimaren irakurtzen ari zelarik, emazte bzar batek thu egin zion begitarterat. Frailea batere etzen kechatu: mokanesa hartu zen, begitartea chukatu eta Katichima segitu. Urruntchagotik beha zagon bitoren seme bat: oro ikusi zituen. Hernandezi jarraiki zitzaion etcheraino, han Frantses-Jabier ezagutu eta harekin berehala katichimaren ikasten hasi. Jada badakizue gaineratekoa.

Gorachago errana dugu Yamaguchin Frantses-Jabierak zenbeit bathaio egin zituela. Zenbeit, bainan ez hainitz! Japonesa leguna da: ez da aise hartzen arzaparretan. Japonian iragan zuen dembora guzian Sainduak etzuen bi

45 / bi mila Japonese baino gehiago konbertitu. Padre-eta bi militarat
ere etzela heldu fintkatzen dutenak! Ez dakigu beraz norbeitik liburu
batean nola erraten ahal izan duen « Jainkoaren eta Elizaren haur
bilhakatzen zirenak, hastean ehunka kondatzen bazituen, gero milaka
egiten zituela Frantses-Jabierak! »

Ber-nahi izan dadien, Yamaguchin ere lan ona hasia zen: aita Cosme
de Torres deitua zuen beraz harat, eta Bungorat joan bera, handik
Chinarat heltzeko gibel-asmuarekin. Nola urratu ahal zitzaion bihotza
Cosme de Torres eta Juan Hernandez azken aldikotz besarkatu zituelarik!
Yamaguchiko girichtino guziak jarraitu nahi izan zitzaizkon itsasoraino
bederen, zer gerta ere: etzituuen utzi. Bi lagun hartu zituen bakharrak, eta,
zakhua bizkarrean, oinez bideari eman. ~~Dunora~~ ^{gerotz} Medina gabe zahartzen eta
pidutzen hasia zen jada: zer-nahi ikusi omen zuen beraz porturaino ezin
helduz. Untzi batek laster ereman zuen ^{gerotz} Chinarat. Han zituen bita ethorriak
Funai, Bungoko hiri-nausiko Portuges eta Euzigeren mandatarari guziak. Her
ongi-ethorri choragarria egin zion hiri-nausiak! «Karririk, atheak, leikoak,
teilatua berak jendez betheak ziren», dio orduko berriketari batek.

Yoshishige zuen Bungoko erregeak izena. Ez ditake asma
errege hori baino gizon hobirik. Berehala esku guziak eman zitzaion Sain-
duari katichima egiteko, predikatze eta ahal bazuen ugarteko fende guziren
konbertitze. Berak ere katichima ikasi nahi izan zuen. Berehala erran
dezagun haatik etzuela baitaioa handik hogaita zazpi urteron buruan
baizik galdetu. Bertako? Gaztea baitzen oraino eta bide-kontrako amodio tzar
batzuek sobera lothua baitzaukaten! Kerbeit da halere egin zuen bezala Sain-
duaren laguntza...

Dembora hortan, Yamaguchin oro nahasirik, Yoshitaka hila
zuten bere etsaiek. Ez dire egungoak, artean errateko, ferritarren arteko gerlak.
Cosme de Torres eta Juan Hernandezi etzioten haatik minik egin, baba-^{aphezen}
elke tzar guziren gatik. Bungoko erregearen amaia hautatu zuten erregetzat
Yoshitakaren ordainez. Amaia bezala, misionesten adiektide on bat zen.
Chinako aldetik aditzen zuen oihuari ihardetsi zezaken orduan Frantses-Jabi-
erek.

Harat joatea aipatu zitenerako, Yoshishigek eta bi ilhabatez Funaien baitaite
zituen bortz ehun girichtino berriek beren egin-ahalak egin zitzaizkaten han
geldiarazi beharrez. Debaldetan, eta nolazpeit Sainduak buruan sar-arazi

46 / zioten Jainkoari sekulan ~~at~~ etzaiola ihardoki behar. Bertzalde
hitzeman zioten arte laburrik barnean zenbeit aphez on igorriko
ziozkatela..... eta Harzilaren erdetsutan, untxi bat Goarat abian zela
ikaririk, hartan sartu zen. Lan handiak egiteko sortua zen, alabainan,
gure herritar Laindua! Eta bidetzen lizeak, mintzaira berriak eta larri
belzaran, beltz, gorra eta edo horiek etzuten lotsatzen!

12

Itzken lanak egunak.

Horra Eskualduna itsasoan egundaino bezala, San Miguel deitu untri batean, nigarretan lehorrean jarraitu zitzaizkon Japonesei Sagundiako bertze zenbeit aphez igoruko jiozkatela hitze-manik. Bere ustez Chinari buruz abiatua zen, erresuma hortako espantuek Japonian eginak baitziokaten eta baitzakien Chinan alhor handi bat kausituko zuela lantzeko: lan gose zen oraino bere berrogoita bospasei urthe nekhatuen eta bere ahulezia guziaren gatik.

«Ez othe luke lana itz ordu? — duqu frangotan aiphatu duqu estkuarazko liburu hartan irakurtzen — Palabar herriet, Treban-korreeto erresumak, Comorinek, Moreko isla handiak, Moluketo islek, Japoneto erresumek entzun dute haren botza. Mendiak eta zelkaiak, itsasoak eta oihanak, hiriak eta bertuak, jendeak eta hirziak, zerua eta lurra heziak atchiki dute bere mirakuluez, espantituek bere lan gaitzez. Ez othe da engoitik laner ase? Nahiz Eskualduna den, haren zangoak ez othe dire engi-tik akhitu? Kabierak ez du sekulan lan eginari behatzen, bethi lan egite-koari.»

Dainan Chinan sartzea etzen errech demora hartan han sortuak etzire-
nentzat: paper hainitz behar zen. Bertzalde Frantses. Labien etzitakien
Chinako basatien erdirat bakharririk mentura ez-eta han bakharririk
lanari loth: baitzpada lagunak behar zituen. Goan bainik etrituen

48 / batzu eta bertzeak ukhaiten ahal : gabe, Chinan sartzea etzen jhurtzia.
Ez ditugu bidete chehetasunak emanen. Hain gaichtoen gatik
untzia aski laster sartu zen San Choan deithu ugarteko portuan: abendoa
zen, 1551 garrena. Hain chuchen portu ~~antuan~~ hortan bertze untzi bat
atcheman zuen Joarat abian zena. Hartan sartu zen eta Otsailari buruz
edo Otsailaren lehen-lehen egunetan Joarat heldu. Hango jesuista batzuek
orduan eskuin eta ezker igorri zituzten guthunak irakurtu ditugu: orok
ez dakite aski rola erran Frantses-Xabieren ikusteak egin zituen atsegina.
Atsegina, eta ongia. Segurki Jainkoak ereman omen zuen Saindua
harat, bakhotcha berritz bide onean sar-arazteko, zaharoa eskuan
harturik makhurren chuchentzeko, eta orori kontseilu hobereenen
emateko. Dizepahirur ilhabetz han zer lanak egin zituen ez ditake
kasik sinhets.

Bainan deusek etzion Eskualdunari gal-arazten ahal chinarat
joateko chedea. Oro antolatutak zirela iduritu zitzaioneko, berritz
untzia hartu zuen, gobernadorearen paper guzietan, zenbeit lagun
hobereketan kautaturik. Japhirilaren hamalaua zen: 1552 garrena:
ortzegun saindu arratsa. Ilhabet baten buruan berritz Malakan zen,
Cochinen doidoiako bat trukaturik, itsasoan iristku frango garhai-
turik. Etzen dudatzen Malakan errechtasun guziak kausituko zituela,
aintzinat joateko eta Chinarat heltzeko. Paduk hobetik! Lehenik
Malaka guzia helde gaichtoek hartua atcheman zuen eta dembora
hainitz eri artatzen gelditu behar izan zitzaion. Gero, Malakan
buruzagi berri bat zen: Joffaro de Jotaide. Eta hunek, Sainduari berari
ez bazion bairtzpada nahi, arras begietan zuen Pereira, misionestak
hartu behar zion untziaren jabea, eta debekatu zion Malakako portu-
tik atheratzen. Eta hitz on guzien gatik, kontseilu guzien gatik, hortan
zagon. Hainbertzetaraino nun azkenekotz Frantses-Xabierek estuimikotz
jo bairtzen! Orduan, bere oinetakoen erhaulta han berean utzirik
sobera gaitxi egin zitelakotz Malakan, handik urrundu zen bethikotz.
Untziak Canton deithu hiriaeren parreraino ereman zuen behin, eta gero,
gibelat eginik, San Choan jada aiphatu ugartean utzi.
Etzen ugarte hortan hainitz egoteko chederik Frantses-Xabierek. Huna
zer irakurtzen dugun handik zenbeit egunen buruan Perierari igorri
zion guthun batean, bertzeak bertze: « Jainko Onaren laguntzarekin,

gure untzia heldu da San Choanerat. Egun batetik bertzerat Chinako
tratulant baten beha nago bere untziarekin. Hitzemana daut dirutan
hartuko nauela berekin eta Cantonerat eremanen. Inditrotz, Eskual-
dunak etzuen ez Cantonen ez bertze nikun Yangorik sartu behar gehiago.
Hitzia jan zion tratulantak eta etzitziaion gehiago begietarat agertu.

Joan ziren orobat, bat bertzearen ondotik, portuan ziren
untzi guziak, nihork Frantses. Labier Chinarat erematea onhartu gabek:
sobera irristu zen kampotiar bat erresuma hortan sar-arazteko.

Dembora hortan hotz handienak helduak ziren eta beren
jatekoak gutitueak zituzten misionestek. Hainbertzenarekin sukhar
tzar batek hartu zuen Napartarra eta bizpahirur eguneg bere lastozko
oheari itzatu. Ohol puska bat khendurik sendarazizhuten, bairan laster
bernitx eritzeko. Erran bat bada demboratsa hartan Laberriko jau-
regi zaharren, Frantses. Labierak haurra zelarik estuetan ibiltzea eta
besarkatzea arras maite zuen gurutzefika bat, ortzirale bater, betbetan
iturri gutela izerdiz estaltzen. Gerortik mirakulu hori ortzirale guziaz
erreberitu omen zen urthe hartan. Jauregiko jendekiak etzuen
dudatu misionestak laster hil behar zuela beraz.

Kenbat egun irauun zuen bigarren eritasun horrek? Ez da
errek erratea. Hainitz aldetarot mintzo dire orduko berriketariak.
Bainan oro baino nahiago dugu sinketsi fontonio, gure Saundua hobe-
kienik lagundu eta maitatu dutenarik bat: « Ortzegun hartan
asteartean chartu-eta - guti edo aski nahasi zitzautium: etzuen
haatik behar ez den elke batkar bat erran. Pegiak zerurat, toria
begitartean, predikatzen ari balitz beren gora, othoitz batzu egin
zuten nihundik adi ez netzazkeenak, nik ez dakitan mintzaira
batean (1). Herbeit badire haatik ongi Jogoan hartu ditudanak, hala
nola: Tu autem peccatorum meorum et delictorum miserere Sarumbatean

(1) Bain othe zen mintzaira hori? Latina? Ez: fontoniok bazakien
latunik aski, hala zen edo ez ezagutzeko. Etzen ere portugesa. Ez-eta espagnola:
portugesa dakienak espagnola aize adi dezake. Eskuara beraz? Mchuna guzien
arabera, ba. Frantses. Labierak maite zuen Eskuara: berak erraten dauku 1543
garrenean norbeiti igorri guthun batean: « Ine mintzaira, Eskuara da »

50/ elkea arras galdu zuen. Hori ikusi nueneko, ene baitan egin nuen
laster galdu behar ginuela eta ez nintzen gehiago urundu. Gau
guzian begiak etzitzen gurutzefikatik aldaratu. Ita argia gabe, ezti
eztia, pausatua zen s.....

Iduri luke beraz igande goiz batez hil zela Frantses-Jabier eta hazilaren
27^a zitatzen. Padire haatik Abendoren biga zela erraten dutenak.
Dena dela, arrotsaldean berean ehortzi omen zuten. Orok badakite
demboraren buruan hobia gorphutzaren bertze norapert eremateko
ideki zelarik, oso-oso zela oraino, bethi eder eta fresko. Soinekoak
berak etzitzen lurreko usteldurek unkituak. Jainkoak hala nahi
zuen.

Horra, aski laburki, zer izan den gure herritar saindu baten
bizia. Ez baditugu ere chokho-moko guziak aski ongi agertu eta argitu
iduritzen zauku aski erran dugula orok ikus dezaten zer gizona eta
zer saindua izan den Frantses-Jabier. Bethi jaint gaitzala zerutik s.....,
eta othoi laquiti gure biziazen bethetzen harek itsasoz bertzaldean iragan dituen
hamar urteak egin dituen bezala!

13 Mirakiulu batzu.

Bere demboran eta hil ondoan sobera mirakiulu egin du san Fran-
tes. Xabierrek oro hemen emateko: bertze liburu bat hasi beharko ginuke. ~~Orain~~
~~Orain~~ Egin dituenetarik bakhar batzu hartuko ditugu beraz doidoia.

1. Ez itsasoan ez lehorrean edateko urik gabe ez ditake bizirik. Horra bada nun
egun batez, Frantses Xabier untxi, batean ipolarik ura eskasten den untxi hartan. Ka-
pitainak burua galdu zuen haur gaicho batzu egarriarekin ithotzen ikubi zitue-
larik. Saindua urrikaldu zen, othortzean hasi, eta zerbitzariari erran zertako
etzuten itsasoko uretik horitzen.

- Itsasoko uretik oraino oro lasterrago hilarazteko?

- Ez, gizonak, ez, ni hor ez da hilen, nik hitz ematen dautzuet

Itsasoko uretik hartu zuten beraz zerbitzariak Sainduaren erranen gainean, edanarazi
eta berak edan: etzen gazia, bainan bai beritiz, gazitu, untxiko barririkak bethe
zituzteneko!.....

2. Antonio de Miranda, Sainduaren zerbitzariatarik bat, gau batez
norapeit ipolarik, duge txar batek ausiki zuen, eta berehala, hats baki, gizon
gizona erori zen lurrerat. Han zabal-zabala demboraren buruan atcheman
zutelarik, Frantses Xabier deitxu zuten. Lasterka ethorri zen, orori othortz egina-
razi eta gero, bere erki bat thuz bustirik, hartaz, Antonio untxitu auskiaren
gainean. Ordu berean berebaitaratu zen ^{Antonio} eta chutitu ~~orain~~ sendo

3. Bita Francisco de Chaves haurra zelarik bethetan eritu zen,
norbeitz pozoinatarik nastki. Joan ziren Frantses Xabieren bilha, eta hurek
zurutzearan seinale choil batez sendatu zuen haurra. Hala-hala sendatu
zuen Malakan etcheko seme on bat. Hiltzerat omen Joan, bainan Sainduak
sendatuko zela erran ordutako, chutitu zen, faterat galdetu eta
ederki jan

52
4. Marcel Mastilli jesuista gazte bat zen: nihundik Japoniarat
joan nahiko zuen misionest. Etzuten utzi bere buruzagiek. Horra nun egun
batez eroriko ikharagarri bat zurubi batzuetarik eginik buru kezurra arrail-
tzen duen. Abirikuek berehala etsitu zuten, eta, itchura guzien arabera,
harenak egina zuen. Gehiago dena, etzezaken irauin: laster joan behar zuen.
Gaieho eriak bere Japonia zuen gogoan halere. Hori ikusirik, buruzagiek
utzi zuten botu baten egiterat: sendatzen bazen, harat joanen zela. Baina
nola senda holako kolpetik? Etzezaken deus har ez atchik.

Pada, jesuista gazte horrek sekulako sinhestea bazuen Frantses Labieren
podorean. Othoitz egin zion ... eta meza saunduaren emateko indarra
galdetu. Galdetuta hori egin zueneko, norbeit aintzinerat ethorri balitzais
bezala, harekin elheteta hasi zen, martiri hil nahi zuela, eta holako.
San Frantses Labierekin ari zen solasean, jada senda, ezen biharamunean
meza saindua eman zuen, egundaino deus ukhan ez balu bezen aibe!

Erran gabe doa hitza atchiki zuela: Japoniarat joan zen
eta han hil. Jesuistek esperantza omen dute, San Frantses Labier bezala,
egun batez aldaretarat altchatur izanen dela Marcel Mastilli

5. Tomboinoko erregea bere ugarteon setiatua zautkan bertze
errege batek. Setiatua Frantses Labieren adichkidea zen. ^{adateko burik atzuen gahilago.} Sainduak
notazpeit jakinarazi zion beraz gurutzte handi bat landatzen bazuen
dorre baten puntan, berehala Jainkoak zerutik behar zen ur gurzia
igorriko ziotela. Eta kala-kala gertatu zen


6. Nechka bat jada hila zen. Tomak hel egion zion Frantses La-
bieri. Saindua ethorri zen, hilaren aintzinean belhaurrikatu, othoitz bat
egin ... eta hila phiztu

7. Itsu bat ethorri zitzaion behin Sainduari, othoi egin zehan
othoitz bat harentzat. Othoiza egin zuen berehala Sainduak, eta biharamunean
harruko harriketan zabilan itsoa, bi begietan aspaldi galduta zuen argia-
rekin, oro harrituak beha jagozkiola!

8. Huma jada frangotan aiphatu dugun Diogo Pereiraren seme
batek behin ~~laine~~ gehiagotan bere adichkideeri erran duen zerbeit:
« Ene aita, Diogo Pereira, Frantses Labierekin arras adichkide zen. Behin
Sainduak hitzeman zion haren semeak etzirela sekulan beharrean
izanen. Pada, behin joan pilik sakelan eta jatetxo mitorik etchean
gabe gertatzen nintzen. Sainduak aitari hitzeman zionaz orhoiturik,



58 / othortzean hasi nitzaion: «Aita Frantses-Jabier marea, ez duzu bada
i kusten zertaratua noizen? Hel zatizkil eta lagun nezazu!» Hainber-
tzenarekin athe aintzinean baratzeakari saltzaile bat hasi zitzaion
orhukra eia ez ginuen deudik behar. Baratzeakari zenbeit galdetu
nizkan mihise batzuetan truk. — «Har zatzu behar dituzun bara-
tzeakari guziak, bainan ez dut mihiserik nahi truk: Gure hitza aski
zant »...
Saltzaile hura etzen gehiago gure karraketarat agertu. Ez dut den gutie-
reko dudarik Frantses-Jabieren mandatari bat zela.

27
26
25
24
23
22
21
20
19
18
17
16
15
14
13
12
11
10
9
8
7
6
5
4
3
2
1
0



0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 32 33 34 35 36 37 38 39 40

27
26
25
24
23
22
21
20
19
18
17
16
15
14
13
12
11
10
9
8
7
6
5
4
3
2
1
0



0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 32 33 34 35 36 37 38 39 40

